



## GOBERNU BATZARRA

2025.01.28

**Alkatea:**  
**Angel Martinez de Rituerto Arregi**

**Bertaratutako zinegotziak:**  
**Kristina Pelaez Errazkin**  
**Ander Figuerido Zubiria**  
**Aitor Agirresarobe Murgi**

Tolosako udaletxean, bi mila eta hogeita bosteko urtarrilaren hogeita zortzian, 09:00etan, lehenengo deialdian, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboan aipatutako zinegotziak agertu dira, gai-zerrenda hau aztertzeko:

**Ez dira bertaratu:**  
**Estitxu Kortejarena Ugarte**  
**Goiuri Ezeiza Arandia**

**Idazkari akzidentala:**  
**Francisco Javier Araniguría Rodrigo**

**Kontu-hartzaile akzidentala:**  
**Paulino Alonso Eraso**

1. Akta hau onartzea: 2025eko urtarrilaren 21ekoa.

2. «13 Laskoain» esparruko «13.1 San Frantzisko pasealekua 37» azpiesparruko jabe bakarreko birpartzelazio-proiektua. Hasierako onespeneren ondotik aurkeztutako alegazioak ebatzi eta behin betiko onspena ematea.

3. Hasierako onspena ematea «20 Amartz» esparruko «20.1 Amartz Paper-Fabrika» azpiesparruko birpartzelazio-proiektuaren lehen aldaketari.

4. Dekretu hauen berri ematea:

2025/118 Dekretua: 2024/62 faktura zerrendak.

2024/1933 Dekretua: 2024/64 faktura zerrendak.

2025/162 Dekretua: 2024/65 faktura zerrendak.

2025/101 Dekretua: 2024/66 faktura zerrendak.



## **1. AKTA HAU ONARTZEA: 2025EKO URTARRILAREN 21EKOA.**

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, izenburuan aipatutako akta aztertu dute.

Aho batez onartu dute.

## **2. «13 LASKOAIN» ESPARRUKO «13.1 SAN FRANTZISKO PASEALEKUA 37» AZPI-ESPARRUKO JABE BAKARREKO BIRPARTZELAZIO-PROIEKTUA. HASIERAKO ONESPENAREN ONDOTIK AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK EBATZI ETA BEHIN BETIKO ONESPENA EMATEA.**

### **IKUSIRIK**

**LEHENA.-** 2024 urriaren 4an, Jaitzubia Barri SL enpresak, Oihana Miren Urruticoechea Garciak ordezkatuta, Tolosako Udalean erregistro elektronikoa bitartez (2024-12675 sarrera zenbakia) «13 Laskoain» esparruko «13.1 San Frantzisko pasealekua 37» azpiesparruko jabe bakarreko birpartzelazio-proiektua aurkeztu zuela.

**BIGARRENA.-** 2024ko urriaren 11n, hirigintza buruak aldeko txostena (*JM24-0064*), baldintzatua, egin zuela eta 2024ko urriaren 18an, berriz, hirigintzako tekniko juridikoak (*MAU240133.1*)

**HIRUGARRENA.-** 2024ko urriaren 22an, Tokiko Gobernu Batzarrak, erabaki zuela hasierako onespena ematea «13 Laskoain» esparruko «13.1 San Frantzisko pasealekua 37» azpiesparruko jabe bakarreko birpartzelazio-proiektuari; behin betiko onespenerako zenbait zuzenketa aurkezteko baldintzapean.

**LAUGARRENA.-** 2024ko urriaren 29an, udalak hartutako erabakia interesdunei jakinarazi zitzaizela.

**BOSGARRENA.-** 2024ko urriaren 31n, erabakia GAOn (211zk.) argitaratu zela eta 2024ko azaroaren 5ean, berriz, El Diario Vasco, Berria eta Tolosaldeko Atarian. Hala, iragarkia udaleko iragarki-oholean egon zela ikusgai 2024ko urriaren 31tik abenduaren 5a bitarte; baita, udaleko egoitza elektronikoan ere.

**SEIGARRENA.-** 2024ko abenduaren 16an, Jaitzubia Barri SLri jendaurrekoan aurkeztutako alegazioa igorri zitzaizela.



**ZAZPIGARRENA.-** 2025eko urtarrilaren 13an, hirigintzako tekniko juridikoak jendaurrekoari buruzko txostena (MAU25003) egin zuela eta udaleko idazkari akzidentalak horren gaineko ziurtagiria egin zuela. Horren arabera, jendaurrekoan alegazio bat aurkeztu zela: 2024ko azaroaren 28an (sarrera zk. 2024-15016 zk.), Gonzalo Arrúe Portu letraduak, San Frantzisko 35, 39A eta Oria kalea 6 zenbakietako jabekekideen erkidegoak ordezkatzuz, aurkeztutakoa.

**ZORTZIGARRENA.-** 2025eko urtarrilaren 13an, Jaitzubia Barri SLk udalean aurkeztutako alegazioen inguruko txostena aurkeztu zuela (sarrera erregistro zk. 2025-484).

**BEDERATZIGARRENA.-** 2025ko urtarrilaren 21ean, Jaitzubia Barri SLk, bere legezko ordezkariak ordezkaturik, «13 Laskoain» esparruko «13.1 San Frantzisko pasealekua 37» azpiesparruko jabe bakarreko birpartzelazio-proiektuaren testu bategina aurkeztu zuela (sarrera erregistro zk. 2025-933) behin betiko onespenerako. Eta, 2025eko urtarrilaren 23an (sarrera erregistro zk. 2025-1052), "04.1 plana" aurkeztu zuten testu bateginaren osagarri gisa.

## KONTUAN HARTURIK

**LEHENA.-** Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 3. eta 4. artikuluetan xedatutakoaren arabera, titularrak baduela gaitasuna administrazio publikoen aurrean jarduteko, eta betetzen dituela baldintzak interesdun izaera onar dakion.

**BIGARRENA.-** Aplikatu beharreko legeria honakoek ezartzen dutela:

A) Estatuko legeria:

- Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30ekoa 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuko 4.2, 5.d eta e, 7, 13.2.c eta 14.c, 18, 25 eta V. Titulua (34-41 artk.).
- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.j), 70.ter1 eta 127.1.d) artikulua.
- Jabetza Erregistroan hirigintza-egintzak inskribatzeari buruzko den uztailaren 4ko 1093/1997 Errege Dekretuko 6. artikulutik 20. artikulura.
- *Ordezko gisa:*
  - Lurraren Araubideari eta Hiri Antolamenduari buruzko apirilaren 9ko 1346/1976 Errege Dekretuaren 97. artikulutik 102. artikulura.
  - Hirigintza kudeaketaren erregelamenduko (azaroaren 25eko 3288/1978 Errege Dekretua) 172. artikulutik 174. artikulura.
- Lurzoruaren Legearen Balorazioen Erregelamendua onartzen duen urriaren 24ko 1492/2011 Errege Dekretua.



B) Euskal Autonomia Erkidegoko legeria:

- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 42. artikulutik 49. artikulura eta 163. artikulua.

HIRUGARRENA.- «13 Laskoain» esparruko «13.1 San Frantzisko pasealekua 37» azpiesparruko jabe bakarreko birpartzelazio-proiektuaren hasierako onespeneren ondotik aurkeztu den alegazioak honakoa jasotzen duela:

- SAN FRANTZISKO 35, 39A ETA ORIA KALEA 6 ZENBAKIETAKO JABEKIDEEN ERKIDEGOAK aurkeztutako alegazioa: Gonzalo Arrúe Portu letraduak ordezkatuta, Tolosako Udalean, 2024/11/28an (sarrera zk. 2024-15016) alegazio-idatzia aurkeztu zuen.

Aurkeztutako alegazio-idatzia, zazpi alegazioz eta erantsitako lau dokumentuz osatua dago; azken horietako hiru «13 Laskoain» esparruko «13.1 San Frantzisko pasealekua 37» azpiesparruko xehetasun-azterketaren eta azpiesparrua egikaritzeko araubidearen aldaketaren hasierako onespeneren ondotik San Frantzisko 35, 39A eta Oria kalea 6 zenbakiko jabekideen erkidegoek aurkeztu zituzten alegazioen kopiak dira eta, laugarrena berriz, 2021eko urriaren 17an Ur Agentziari igorritako kontsulta bati erantzuten dioen txostena da.

Laburbilduz, adierazitako zazpi alegazioetan honakoa azaltzen da:

**LEHENENGO ALEGAZIOA.-** Alegazio-jartzaileak aipamena egiten die ordezkaten dituen jabekideen erkidegoek «13 Laskoain» esparruko «13.1 San Frantzisko pasealekua 37» azpiesparruko xehetasun-azterketaren eta azpiesparrua egikaritzeko araubidearen aldaketaren hasierako onespeneren aurka tartekatu zituzten alegazioei eta, alegazio-idatzi horiek, erantsitako dokumentu gisa (1., 2. eta 3. dokumentuak) atxikitzen ditu.

**BIGARREN ALEGAZIOA.-** Alegazio-jartzaileak adierazten du «13 Laskoain» esparruko «13.1 San Frantzisko pasealekua 37» azpiesparruko jabe bakarreko birpartzelazio-proiektuak ez duela Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra araututakoa garatzen, baizik bere ustez legez kontrakoa den xehetasun-azterketaren aldaketan jasotako "planeamendu berria". Hori horrela, adierazten du birpartzelazioak esleitzen duen aprobetxamendua xehetasun-azterketaren aldaketan jasotako eraikuntzetan egiten dela eta ez Plan Orokorra aurreikusten zituenetan. Adierazitakoa azalduta, alegazio-jartzaileak baieztatzen du badela lehen arrazoi bat birpartzelazioa deuseztatzeko; izan ere, argudiatzen du birpartzelazio-proiektuaren hasierako onspena xehetasun-azterketaren aldaketaren behin betiko onspena baino lehen eman dela eta, beraz, San Frantzisko 35 zenbakiko jabekide erkidegoen arrapalari buruz xehetasun-azterketaren aldaketan onartutako alegazioan jasotakoa ez dela birpartzelazio-proiektuan jaso.



Hori horrela, adierazten da birpartzelazio-proiektuaren hasierako onespén hori erabat deuseza dela; oinarri duen plangintza-tresna (xehetasun-azterlanaren aldaketa) onartu aurretik egin delako, eta, gainera, aldatu egin delako. Hau da, azpimarratzen da aurretiko plangintza irmorik gabe kudeatu dela, hots, "etxea teilatutik hasi dela".

**HIRUGARREN ALEGAZIOA.-** Alegazio-jartzaileak aipatzen du birpartzelazioari buruz formulatzen diren gainerako alegazioak, funtsean, aipatutako xehetasun-azterketaren aldaketari buruz formulatutako berberak direla, baieztatuz birpartzelazioa xehetasun-azterketa horretan oinarritzen dela. Horrela, xehetasun-azterketa Zuzenbidearen aurkakoa dela jota, ulertzen du arrazoi berberengatik xehetasun-azterketa ere hala dela. Are gehiago, baieztatzen du xehetasun-azterketa deuseza dela bai edukiagatik (xehetasun-azterketaren bitartez HAPO aldatu nahi delako) bai prozeduragatik (azkarrago joateko legez kanpoko bidea hartu nahi delako).

Alegazio-jartzaileak adierazten du jarduketa honen guztiaren oinarrizko gaia dela HAPOk eremu horretarako aurreikusitakoaren aldean egin den aldaketa, izan ere, argudiatzen du HAPOk bi eraikin berri eraikitzea ezartzen zuen bitartean, xehetasun-azterlanaren aldaketaren eta birpartzelazioaren antolamendu berriak eta desberdinak aurreko eraikina mantentzea/finkatzea proposatzen dutela, eta gainerako aprobetxamendu pribatiboa atzealdeko eraikinera eramatea, zeina altuago eta zabalago aurreikusten den.

Hala, gehitzen da esanez xehetasun-azterketaren aldaketan jasotako atzeko eraikina ez datorrela bat HAPOkoarekin, eta birpartzelazioan jasotakoa, berriz, aurreko biak ez bezalakoa dela; gehituz, instrumentu horien aurreko hiru eraikinak ere desberdinak diruditela. Hau da, argudiatzen du instrumentu bakoitzak atzealdeko eraikin bat eta aurrealdeko eraikin desberdin bat aurreikusten dituela, arau-hierarkia alde batera utzita.

HAPOko, xehetasun-azterketaren aldaketako zein birpartzelazioko planoetako irudi bana atxikitzen ditu.

**LAUGARREN ALEGAZIOA.-** San Frantzisko pasealekuko 35. zenbakiko garajeetara sartzeko zortasuna eta arrapalari buruzkoa.

Alegazio-jartzaileak hitzez-hitz kopiatzen du «13 Laskoain» esparruko «13.1 San Frantzisko pasealekua 37» azpiesparruko xehetasun-azterketaren eta azpiesparrua egikaritzeko araubidearen aldaketaren hasierako onespénaren ondotik aurkeztutako alegazioan San Frantzisko pasealekuko 35. zenbakiko garajeetara sartzeko zortasuna eta arrapalari buruz adierazi zuena. Era berean, osorik eta hitzez-hitz kopiatzen du udalak alegazio hori partzialki onartzeko erabilitako argudiaketa ere.

Hala, alegazio-jartzaileak argudiatzen du birpartzelazio-proiektuak ere ez duela zortasun hori aurreikusten eta, horren aurka daudenez, zortasun hori birpartzelazioan sartzeko eskaera egiten du. Era berean, gehitzen du esanez birpartzelazioaren ondorioz sortutako finka berriek San Frantzisko 35 zenbakiko garajerako bide-



zorraren eskubidea jaso behar dutela.

Amaitzeko, Ur Agentziak zortasunaren alde txostena eman zuela aipatzen da (4. dokumentua).

**BOSGARREN ALEGAZIOA.-** Alegazio-jartzaileak aipamena egiten dio Tolosako Udalean 2024ko azaroaren 14an udal-ordezkariekin izandako bileraren ondotik jasotako krokis batzuei, adieraziz eraiki nahi den "mamotretoa" begien aurrean inbaditzailea eta onartezina dela. Hala, krokis horiek eransten dira kolore gorritz nabarmenduta fatxadak mugakideetatik aterako dena, bai lerrokaduran bai altueran. Aurrealdea inbaditzea izango dela ere aipatze da. Era berean, sustatzaileak Interneteko bere webgunean argitaratutako fotomuntaketak ere eransten dira.

**SEIGARREN ALEGAZIOA.-** Aurreikusitako lerrokadurak, altuerak eta eraikigarritasunari buruzkoa.

Alegazio-jartzaileak hitzez-hitz kopiazen du «13 Laskoain» esparruko «13.1 San Frantzisko pasealekua 37» azpiesparruko xehetasun-azterketaren eta azpiesparrua egikaritzeko araubidearen aldaketaren hasierako onespeneren ondotik aurkeztutako alegazioan aurreikusitako lerrokadurak, altuerak eta eraikigarritasunari buruz adierazi zuena. Hala, atzeko eraikin berriaren lerrokadurari dagokionez, lehendik alegatutakoari gehitzen dio eraikin horrek ez dioala, inola ere, eraikin mugakideen lerrokadurari jarraitzen eta birpartzelazio-proiektuko 05 eta 07 planoei egiten die erreferentzia horren isla gisa.

Horrela, aintzat harturik «13 Laskoain» esparruko «13.1 San Frantzisko pasealekua 37» azpiesparruko xehetasun-azterketaren eta azpiesparrua egikaritzeko araubidearen aldaketaren hasierako onespeneren ondotik aurkeztutako alegazioei erantzuteko udalak xehetasun-azterketen inguruan erabili zuen argudiaketa, alegazio-jartzaileak guztiz aurka dagoela adierazi eta hitzez-hitz eta literalki honakoa adierazten du:

«1º).- Un Estudio de Detalle es lo que dice su nombre: de detalle. Es decir, que no se puede a través de un Estudio de Detalle realizar modificaciones sustanciales en el planeamiento, sino únicamente afinar pequeñas modificaciones. El artículo 19 del Plan General que menciona el Ayuntamiento señala: *“Vinculación normativa y régimen de reconsideración de las determinaciones de calificación pormenorizada. «(...)3. Las determinaciones de calificación pormenorizada establecidas bien en este Plan, bien en el planeamiento pormenorizado promovido en su desarrollo, podrán ser modificadas mediante la formulación de estudios de detalle en los siguientes supuestos: — Reajuste de las ordenanzas particularizadas de las parcelas edificables, en los extremos propios del campo de intervención de un estudio de detalle”.* Las sustanciales modificaciones de planeamiento operadas en la Modificación del Estudio de Detalle y acogidas en la Reparcelación están fuera de “los extremos propios del campo de intervención de un estudio de detalle”.

2º).- La Modificación del Estudio de detalle y la Reparcelación contemplan un sustancial cambio estructural desde un punto de vista conceptual de las edificaciones previstas por el

ESKUF7facc0-7d38-4ce5-bdfd-fb438e6275f3



Plan General, cuestión que escapa de su ámbito de actuación y que lo tiñe de nulidad. Esta cuestión se aprecia gráficamente en los tres distintos modelos de edificios que el Plan General, la Modificación del Estudio de Detalle y la Reparcelación prevén y que hemos reflejado en las páginas 3 y 4 de este escrito.

La diferencia sustancial está en que mientras el Plan General prevé dos nuevos edificios, uno delantero bajo y uno trasero más alto, ambos de uso y aprovechamiento privativo, la Modificación del Estudio de Detalle y la Reparcelación prevén (con sus diferencias) consolidar el actual edificio delantero, constituyéndolo en dotacional y con una última planta de aprovechamiento privativo, y un enorme edificio trasero de aprovechamiento privativo.

Es decir, que la Modificación del Estudio de Detalle y la Reparcelación alteran la naturaleza del edificio delantero, que pasa de nuevo edificio de aprovechamiento privativo en el Plan General, a consolidado edificio "mixto" dotacional y de uso privativo en aquéllos.

A juicio de esta parte este cambio de naturaleza es sustantivo, estructural, y no puede realizarse con una Modificación del Estudio de Detalle ni con una Reparcelación, lo que tiñe a ambos de nulidad.

3º).- La parte estructural del Plan General contempla una serie de prescripciones que, pese a lo defendido por el Ayuntamiento pretendiendo desviando la atención a la parte pormenorizada de tal Plan, sí se ven modificadas por el Estudio de Detalle y por la Reparcelación, luego se incurre en nulidad. Así en varios puntos estructurales del Plan General:

- En cuanto a la edificabilidad, Así, el Plan General (pág. 10.475 del BOG) señala:

III. RÉGIMEN URBANÍSTICO ESTRUCTURAL

1. Calificación global.

1.1. Zona «A.20 Residencial de Edificación Abierta».  
(Superficie: 113.656 m<sup>2</sup>).

1.1.1. (Sub)ámbito «13.1 Paseo San Francisco 37».

A. Condiciones de edificación:

a) Edificabilidad urbanística:

— Sobre rasante: 2.847 m<sup>2</sup>(t).

— Bajo rasante: 3.280 m<sup>2</sup>(t).

Hemos acreditado en las páginas 33 y siguientes que esta edificabilidad ha sido ampliamente superada, sin que este Ayuntamiento haya podido probar lo contrario.

-En cuanto a la forma de las edificaciones el Plan General (pág. 10.475 del BOG) establece:

b) Parámetros reguladores de la forma de la edificación:

Dichos parámetros serán equivalentes a los de las edificaciones existentes en el entorno.

La forma de las edificaciones establecidas por la Modificación del Estudio de Detalle y de la Reparcelación en absoluto son equivalentes a las de las edificaciones del entorno. Véanse los croquis y fotografías que hemos aportado (págs. 20-22 de este escrito) en lo que se aprecia que ese enorme edificio trasero es más alto (distinta altura), ancho (distintas alineaciones) y tiene una cubierta distinta (plana) a los edificios del entorno.

-En cuanto al régimen jurídico de la edificabilidad residencial el Plan General (pág. 10.476 del BOG) establece:



- b) Régimen jurídico de la edificabilidad residencial:
- Edificabilidad residencial de promoción libre (100%): 2.352 m<sup>2</sup>(t).
  - Edificabilidad residencial total: 2.352 m<sup>2</sup>(t).

Mientras que la Reparcelación contempla una edificabilidad muy superior, de 199'07m<sup>2</sup> de "vivienda usada" en el edificio delantero y de 2.497'93m<sup>2</sup> de vivienda libre nueva en el trasero, total, 2.697m<sup>2</sup>. Y añadir a ello los 630m<sup>2</sup> de lo que ahora llaman dotación local.

PARCELA	SUPERFICIE m2	USOS	Edificabilidad m2	Coefficientes Homogenización	UVUs TOTALES
P-1	496,00 m2	Vivienda Libre Usada	199,07 m2	1,3385	266,4482
		Dotación local (terciario)	630,00 m2	0,0000	0,0000
		<b>Subtotal</b>	<b>829,07 m2</b>		<b>266,4482</b>
P-2	1.051,00 m2	Vivienda Libre Nueva	2.497,93 m2	1,0000	2.497,9300
		Aparcamiento B/R	3.084,00 m2	-0,0774	-238,7119
		Terciario	150,00 m2	0,5348	80,2215
		<b>Subtotal</b>	<b>5.731,93 m2</b>		<b>2.339,4396</b>
<b>TOTAL</b>	<b>1.547,00 m2</b>		<b>6.561,00 m2</b>		<b>2.605,8878</b>

Y a ello, además, se ha de añadir la necesaria superficie que habrá que dotar para establecer un acceso a esa "vivienda libre usada" de 199'07m<sup>2</sup> de la planta alta (cuarta) del edificio delantero, puesto que necesariamente tal acceso deberá ser privado y propio, y no a través del elemento dotacional, lo cual supone sumar cuanto menos, otros 60m<sup>2</sup>. Luego se incumple esta prescripción estructural.

-En cuanto a la altura el Plan General (pág. 10.477 del BOG) establece:


— Altura máxima de edificación en las parcelas con frente a espacios públicos de primer orden (anchura igual o superior a 12 m): 18,50 m, medidos entre la vía pública y el alero.

El número máximo de plantas de edificación sobre rasante en esos casos es de planta baja y 5 plantas altas.

— Altura máxima de edificación en las parcelas con frente a espacios públicos de segundo orden (anchura inferior a 12 m): 15,50 m, medidos entre la vía pública y el alero.

El número máximo de plantas de edificación sobre rasante en esos casos es de planta baja y 4 plantas altas.

Mal casa la previsión de la modificación del Estudio de Detalle y de la Reparcelación, que se van a un edificio trasero de 28'60m<sup>2</sup> de altura y 8 plantas (7 + ático) como expresamente recoge la Modificación, alejándose absolutamente de las alturas del entorno:



En definitiva, la Modificación del Estudio de detalle y la Reparcelación alteran sustancialmente varias prescripciones estructurales del Plan General, luego son nulos».





## **ZAZPIGARREN ALEGAZIOA.- Prozedurari buruzkoa.**

Alegazio-jartzaileak «13 Laskoain» esparruko «13.1 San Frantzisko pasealekua 37» azpiesparruko xehetasun-azterketaren eta azpiesparrua egikaritzeko araubidearen aldaketaren hasierako onespeneren ondotik aurkeztutako alegazioan prozeduraren inguruan jasotako argudiaketa bera jasotzen du.

Adierazitako guztiarengatik, alegazio-jartzaileak **ESKATZEN** du adierazitako alegazio horiek aurkeztutzat har daitezela aipatutako birpartzelazioaren aurka, ordezkaturako jabekideen elkarteen lerrokadurei, altuerei, eraikigarritasunari eta argi zein bisten afekzioari dagokionez; ez dadila onartu parametro horiek Plan Orokorrera egokitzen ez diren bitartean, eta, bestela, deuseztat jo dadila; San Frantzisko 35eko jabekide erkidegoko garaje-plantaren zortasuna sartzea erabaki dadila; eta, hala badagokio, legez ezarritako prozedurari jarraitzea babesgabetasunik sortu gabe.

**LAUGARRENA.-** Adierazitako alegazioen aurrean hirigintzako tekniko juridikoak egindako **AZTERKETA JURIDIKOAN** jasotakoa:

«Ikusirik espediente honen baitan aurkeztutako alegazioen edukia, hein handi batean, aurretik «13 Laskoain» esparruko «13.1 San Frantzisko pasealekua 37» azpiesparruko xehetasun-azterketaren eta azpiesparrua egikaritzeko araubidearen aldaketaren hasierako onespeneran jabekide erkidego horiek aurkeztutako alegazioen bera dela, txosten hau izenpetzen duenak aurretik aurkeztutako alegazio horiek erantzuteko egindako txostenera lotzen da eta bertan jasotakotik abiatzen da.

### **▪ LEHENENGO ALEGAZIOA.**

Alegazio-jartzaileak ondo dioen moduan ordezkutzen dituen jabekideen erkidegoek «13 Laskoain» esparruko «13.1 San Frantzisko pasealekua 37» azpiesparruko xehetasun-azterketaren eta azpiesparrua egikaritzeko araubidearen aldaketaren hasierako onespeneraren aurka alegazioa bana aurkeztu zuten. Hala, Udaltzako, 2024ko urriaren 31n, egindako Ohiko Osoko Bilkuran, besteak beste, zati batean onartu zituen; hain zuzen, onartu zen San Frantzisko 35 zenbakiko jabekideen garajera sartu ahal izateko arrapala zabaltzeko aukera eta, beraz, San Frantzisko 37 azpiesparruko sotoko lerrokadurak aldatzea; etorkizunean Udala eta bizilagunen artean dagokion Hitzarmena izenpetu eta arrapala zabaltzeko aukera egingarria izan dadin.

Adierazitako alegazioak aipatzeaz gain, ez dago bestelako eskaerarik. Beraz, ez dago osorik edo zati batean baisteko edo ezestekorik.



## ▪ BIGARREN ALEGAZIOA.

Alegazio-jartzaileak baieztatu bezala Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko urriaren 22an erabaki zuen «13 Laskoain» esparruko «13.1 San Frantzisko pasealekua 37» azpiesparruko jabe bakarreko birpartzelazio-proiektuaren hasierako onespena eta, Udalbatzak, 2024ko urriaren 31n egindako Ohiko Osoko Bilkuran erabaki zuen «13.1 San Frantzisko pasealekua 37» azpiesparruko xehetasun-azterketaren eta azpiesparrua egikaritzeko araubidearen aldaketaren behin betiko onespena.

Legian aurreikusita dago plangintza-tresnak eta kudeaketa-dokumentuak batera eta aldi berean izapidetzea, betiere behin betiko onarpen tresna horien arau-hierarkia errespetatuz egiten bada. Hala, Hirigintza Kudeaketaren Erregelamenduak (81 zein 101.2 artk.) zehazki aurreikusten du aukera hori birpartzelazio-proiektuari dagokionez. Beraz, zentzu horretan ez dago arrazoirik birpartzelazio-proiektua deuseztatzeko.

Esandakoaz gain, kontuan hartzekoa da talde idazleak 2024ko irailaren 18an udalean «13 Laskoain» esparruko «13.1 San Frantzisko pasealekua 37» azpiesparruko xehetasun-azterketaren eta azpiesparrua egikaritzeko araubidearen aldaketaren hasierako onespenean aurkeztutako alegazioen inguruko txostena aurkeztu zuela, zeinak zati batean onartzea proposatzen zuen. Eta, hala, 2024ko urriaren 14an, sustatzaileak aurkeztutako Testu Bateginean jada egokitua zegoen San Frantzisko 37 azpiesparruko sotoko lerrokadura; etorkizunean San Frantzisko 35 zenbakiko jabekideen garajera sartu ahal izateko arrapala zabaltzeko aukera egingarria izan zedin. Hori horrela, behin betiko onespena testu bategin horri eman zitzaion.

Birpartzelazio-proiektura bueltatuz, nahiz eta «13 Laskoain» esparruko «13.1 San Frantzisko pasealekua 37» azpiesparruko jabe bakarreko birpartzelazio-proiektuaren hasierako onespena «13.1 San Frantzisko pasealekua 37» azpiesparruko xehetasun-azterketaren eta azpiesparrua egikaritzeko araubidearen aldaketaren behin betiko onespena baino lehen eman, birpartzelazio-proiektuan jaso zen San Frantzisko 37 azpiesparruko sotoko lerrokaduraren aldaketa eta, baita, HAPOn «13 Laskoain» esparruari dagokion fitxa urbanistikoan jasotako sarbide- eta bide-zortasuna.

Esandakoarekin adierazten da birpartzelazio-proiektua bat datorrela indarrean dagoen hirigintza-antolamenduarekin eta legez ezarritako prozedura errespetatzen duela; ondorioz, alegazioa ezetsi egin behar da.



## ▪ HIRUGARREN ALEGAZIOA.

Alegazio-jartzaileak xehetasun-azterketa Zuzenbidearen aurkakoa dela jota, ulertzen du arrazoi berberengatik xehetasun-azterketa ere hala dela. Honela, gehitzen du xehetasun-azterlanaren aldaketaren eta birpartzelazioaren antolamendu berriak eta desberdinak aurreko eraikina mantentzea/finkatzea proposatzen dutela; HAPOn jasotakotik aldenuz. Hala, baieztatzen du HAPOn, xehetasun-azterketan eta birpartzelazio-proiektuan aurreikusitako atzealdeko eta aurrealdeko eraikinak desberdinak direla.

Kontuan izanik orain izapidetzen ari den espedientea birpartzelazio-proiektua dela eta jada xehetasun-azterketaren eta azpiesparrua egikaritzeko araubidearen aldaketaren inguruan aurkeztutako alegazioak erantzun eta ebatzi zirela, argitu nahi da San Frantzisko 37 zenbakian dagoen «Villa Sagrado Corazon» eraikina ez duela ez xehetasun-azterketak ez birpartzelazio-proiektuak mantendu edota finkatu; eraikin hori Tolosako Hiri Ordenazioko Plan Orokorraren Katalogoan barneratuz finkatu baitzen. Horrekin batera, azaldu behar da hasieran onetsitako birpartzelazio-proiektuak xehetasun-azterketaren aldaketaren behin betiko onarpenean sartutako antolamendua zein eraikina, bere hegalkinekin, jasotzen duela. Beraz, ez da zuzena antolamendu alternatibo bat jasotzen duenik.

Nolanahi ere, kontuan izanik Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 42. Artikuluak araututakoa, birpartzelazio-proiektuak ezin du antolamendua aldatu, artikulu horrek esleitzen dizkion eginkizunetara mugatu behar baita; proiektuak berak 1.5 atalean adierazten duen bezala. Ildo horretan, birpartzelazio-proiektuak ezin du antolamendua alde batera utzi eta, horregatik, xehetasun-azterketaren aldaketak diseinatzeko emaitza-partzelak baino ez ditu jasotzen. Hau da, Legez behartuta dagoena besterik ez du egiten.

Proiektua bat dator indarrean dagoen hirigintza-antolamenduekin, eta, beraz, ezetsi egin behar da egindako alegazioa.

## ▪ LAUGARREN ALEGAZIOA.

Alegazio-jartzaileak adierazten du «13.1 San Frantzisko pasealekua 37» azpiesparruko jabe bakarreko birpartzelazio-proiektuak ez duela jasotzen HAPOn «13 Laskoain» esparruari dagokion fitxa urbanistikoan jasotako sarbide- eta bide-zortasuna. Baieztapen hori, ordea, ez da zuzena; birpartzelazio-proiektuko 42. orrian P02 lursail-orubeari dagokionez kargen atalean honakoa baitio:



«Los sótanos de la edificación a construir, con sus accesos, quedan gravados con servidumbre de acceso/paso a favor de la totalidad de los sótanos existentes y/o proyectados de las parcelas y espacios colindantes públicos y privados (San Francisco Atzekalea 39A; Paseo San Francisco 35; parcelas y terrenos ubicados en el patio de manzana ubicado entre las edificaciones del Paseo Pedro de Tolosa, la calle Oria y San Francisco Atzekalea; etc.). De esa manera, a los sótanos existentes y/o proyectados en estas parcelas y terrenos podrá accederse a través de aquel sótano y del acceso al mismo. Sin perjuicio de su obligación de contribuir a los costes de construcción de los accesos y a su mantenimiento».

Beraz, baieztatu daiteke birpartzelazio-proiektuak betetzen duela alegazio-jartzaileak eskatutakoaren eta, ondorioz, aurkeztutako dokumentuan ez dela aldaketarik egin behar.

#### ▪ **BOSGARREN ALEGAZIOA.**

Alegazio-jartzaileak atxikitutako krokisei buruzko aipamena egiten du baina, ez du eskaera zehatzik egiten ez eta hasieraz onartutako birpartzelazio-proiektuari buruzko aipamenik. Beraz, ez dago osorik edo zati batean baisteko edo ezestekorik.

#### ▪ **SEIGARREN ALEGAZIOA.**

Alegazio-jartzaileak alegatzen du birpartzelazio-proiektuak HAPOn eta xehetasun-azterketan jasotakoaz bestelako antolamendua jasotzen duela, eta horrek, bere ustez, xehetasun-azterketaren aldaketari alegatutakoa indartzen duela, aurreikusitako lerrokadurei, altuerei eta eraikigarritasunei dagokienez. Hala, lehendik aurkeztutako alegazioan aspektu horiei buruz adierazi zuena hitzez-hitz kopiatzen du.

Hirugarren alegazioari emandako erantzunean adierazienez, birpartzelazio-proiektuak xehetasun-azterketaren aldaketaren behin betiko onarpenean sartutako antolamendu bera jasotzen du. Birpartzelazio-proiektuak indarrean dagoen legeriaren arabera garatu besterik ez du egiten aurreikusitako antolamendua, ezin baitu alde batera utzi. Beraz, arau-hierarkia errespetatzen da.

Nolanahi ere, seigarren alegazioan azaldutako gaiak ez datoz bat birpartzelazio-proiektuarekin; izan ere, proiektu horren xedea ez da hirigintza-antolamendua, eta, gainera, ez du inolako eraikuntzarik baimentzen. Alegazioan jasotako gaiei buruzko txostena xehetasun-azterketaren aldaketa izapidetzean eman zen, eta Udalbatzako osoko bilkuraren 2024ko urriaren 31ko erabakiaren bidez ebatzi ziren.



## ▪ ZAZPIGARREN ALEGAZIOA.

Alegazio-jartzaileak «13 Laskoain» esparruko «13.1 San Frantzisko pasealekua 37» azpiesparruko xehetasun-azterketaren eta azpiesparrua egikaritzeko araubidearen aldaketaren hasierako onespeneren ondotik aurkeztutako alegazioan prozeduraren inguruan jasotako argudiaketa bera jasotzen duenez, alegazio horri erantzuteko egindako txostenera lotzen natzaio eta alegazioa ezetsi zuen Udaltzaren Ohiko Osoko Bilkuran 2024ko urriaren 31n hartutako erabakiari.

Orain izapidetzen ari den birpartzelazio-proiektuari dagokionean, esan behar da bera izapidetzeko prozedura Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 42. Artikuluan zein Hirigintza Kudeaketaren Erregelamenduko 101. eta hurrengo artikuluetan aurreikusitakoa dela. Beraz, Tolosako Udala legez aurreikusitako prozedura jarraitzen ari da eta alegazio-jartzailearen, eragindakoen eta, oro har, herritarren eskubideak bermatuz ari da izapidetzen. Ondorioz alegazioa ezetsi egin behar da».

**BOSGARRENA.-** Sustatzaileak aurkeztutako «13 Laskoain» esparruko «13.1 San Frantzisko pasealekua 37» azpiesparruko jabe bakarreko birpartzelazio-proiektuaren testu bateginaren aurrean hirigintzako tekniko juridikoak egindako **AZTERKETA JURIDIKOA**:

«2025ko urtarrilaren 21 zein 23an, Jaitzubia Barri SLk, bere legezko ordezkariak ordezkaturik, aurkeztutako «13 Laskoain» esparruko «13.1 San Frantzisko pasealekua 37» azpiesparruko jabe bakarreko birpartzelazio-proiektuaren testu bateginaren edukia aztertuta, ondorioztatzen da hasierako onespenera ezarritako baldintza guztiak bete eta, beraz, birpartzelazio-proiektua egokitu zein zuzendu dela. Ondorioz, ez dago eragozpenik testu bategina behin betikoz onartzeko».

**SEIGARRENA.-** «13.1 San Frantzisko pasealekua 37» azpiesparruko jabe bakarreko birpartzelazio-proiektua behin betiko onartzeko eskumena Alkateari dagokiola, hirigintza-kudeaketako egintza den heinean, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.j) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz. Tolosako Udalari dagokionez, ordea, eskuduntza hori Tokiko Gobernu Batzordeari eskualdatu zitzaioela 2023ko uztailaren 3ko 2023/1707 Alkatetza Dekretuz. Hortaz, organo horri dagokiola aurkeztutako alegazioak ebatzi eta behin betiko onspena ematea.

Beraz, aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,



## ERABAKI DU

**LEHENA.-** EZESTE 2024ko azaroaren 28an (sarrera zk. 2024-15016 zk.), Gonzalo Arrúe Portu letraduak, San Frantzisko 35, 39A eta Oria kalea 6 zenbakietako jabekideen erkidegoak ordezkatzuz, AURKEZTUTAKO ALEGAZIOA, «13 Laskoain» esparruko «13.1 San Frantzisko pasealekua 37» azpiesparruko jabe bakarreko birpartzelazio-proiektuaren hasierako onespenerari dagokionez, azterketa juridikoan adierazitako arrazoiengatik.

**BIGARRENA.-** BEHIN BETIKO ONESPENA EMATEA Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren «13 Laskoain» esparruko «13.1 San Frantzisko pasealekua 37» azpiesparruko jabe bakarreko birpartzelazio-proiektuaren testu bateginari; 2025eko urtarrilaren 21 zein 23an,- erregistro zk. 2025-933/2025-1052, aurkeztutako dokumentuekin bat, Jaitzubia Barri SL enpresak, Compañía de las hijas de la caridad de San Vicente de Paul jabe bakarra ordezkatzuz, aurkeztuta eta Ion Patxi Urrutikoetxea Garcia arkitektoak zein Sergio Tejedor Abad eta Fulgencio Gutierrez-Solana abokatuek idatzia.

**HIRUGARRENA.-** Behin betiko onspen erabakia hau, hasierako onspena argitaratu zen eran argitaratzea.

**LAUGARRENA.-** Erabaki hau alegazio-jartzaileari zein enpresa sustatzaileari jakinaraztea eta berri ematea eragindako jabe zein interesdunei; baita, udaleko Kontu-Hartzailletza eta Diruzaintza sailari ere.

**BOSGARRENA.-** Behin administrazio bidean irmoa denean, Birpartzelazio-proiektua formalizatzea [interesdunaren kargurako eskritura publikoaren bidez edo abuztuaren 25eko 3288/1978 Errege Dekretuaren bidez onartutako Hirigintza Kudeaketako Erregelamenduaren 113.1 artikuluan xedatutako solemniteteak eta baldintzak biltzen dituen administrazio-dokumentuaren bidez] eta, behin formalizatu ondoren, Tolosako Jabetza Erregistroan inskribatzea.

**SEIGARRENA.-** Jabetza Erregistroan inskribatu ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundian Hirigintzako eskumena duen Departamenduari zein Ogasun eta Finantza Departamenduari jakinaraztea.



### **3. HASIERAKO ONESPENA EMATEA «20 AMAROTZ» ESPARRUKO «20.1 AMAROTZ PAPER-FABRIKA» AZPIESPARRUKO BIRPARTZELAZIO-PROIEKTUAREN LEHEN ALDAKETARI.**

#### **IKUSIRIK**

**LEHENA.-** 2024 azaroaren 27an, Euskadiko Etxebizitza eta Lurra EA (VISESA), Carlos Quindos Fernandezek ordezkatuta, Tolosako Udalean erregistro elektronikoko bitartez (2024-14889 sarrera zenbakia) «20.1 Amarotz Paper-Fabrika» azpiesparruko birpartzelazio-proiektuaren aldaketa aurkeztu zuela hasierako onespenerako. Eta, 2025eko urtarrilaren 3an zein 8an (2024-74 eta 276 sarrera zenbakiak), proiektuari lotutako dokumentazio osagarria (Jabetza Erregistroko ziurtagiriak eta planoak) aurkeztu zuela.

**BIGARRENA.-** 2025eko urtarrilaren 22n (2024-1039 sarrera zenbakia), Araudi SL enpresak, Nekane Azarola Martinez abokatuak ordezkatuta, "Tolosako Plan Orokorreko «20.1 Amarotz Paper-Fabrika» azpiesparruko birpartzelazio-proiektuaren aldaketari buruzko txosten juridikoa" izeneko dokumentua aurkeztu zuen; Tolosako Udalak hala eskatuta.

#### **KONTUAN HARTURIK**

**LEHENA.-** Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 3. eta 4. artikuluetan xedatutakoaren arabera, titularrak baduela gaitasuna administrazio publikoen aurrean jarduteko, eta betetzen dituela baldintzak interesdun izaera onar dakion.

**BIGARRENA.-** Aplikatu beharreko legeria honakoek ezartzen dutela:

A) Estatuko legeria:

- Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30ekoa 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuko 4.2, 5.d eta e, 7, 13.2.c eta 14.c, 18, 25 eta V. Titulua (34-41 artk.).
- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.j), 70.ter1 eta 127.1.d) artikulua.
- Jabetza Erregistroan hirigintza-egintzak inskribatzeari buruzko den uztailaren 4ko 1093/1997 Errege Dekretuko 6. artikulutik 20. artikulura.



- *Ordezko gisa:*

- Lurraren Araubideari eta Hiri Antolamenduari buruzko apirilaren 9ko 1346/1976 Errege Dekretuaren 97. artikulutik 102. artikulura.
- Hirigintza kudeaketaren erregelamenduko (azaroaren 25eko 3288/1978 Errege Dekretua) 172. artikulutik 174. artikulura.

- Lurzoruaren Legearen Balorazioen Erregelamendua onartzen duen urriaren 24ko 1492/2011 Errege Dekretua.

B) Euskal Autonomia Erkidegoko legeria:

- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 42. artikulutik 49. artikulura eta 163. artikulua.

HIRUGARRENA.- Birpartzelazioak ondoko xedeetako edozein izan dezakeela:

- Birpartzelazioaren aurretik dauden finka, partzela eta orubeak erregularizatzea.
- Hirigintza-antolamenduaren ondoriozko onurak eta kargak modu bidezkoan banatzea, urbanizazio- eta egikaritze-gastuak barne. Hartarako, eta hirigintza-antolamenduak, dagokion eremuan, tipologiaren aldetik ezberdinak diren hirigintza-erabilerak aurreikusten baditu, eta horien ondorioz eraikitze-unitate bakoitzeko ekonomi errendimendu ezberdinak sortu badaitezke, orduan, haztatze-koefiziente zuzentzaileak erabili beharko dira, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 35. artikuluari jarraiki.
- Hirigintza-eraikigarritasun fisikoa, betiere, plangintzaren antolamendu xehatuaren arabera euskarri egoki izan dezakeen lurzoruan kokatzea.
- Lursailak eta, hala badagokio, derrigorrean eta dohain laga beharreko eskubideak udalari esleitzea.
- Eragile urbanizatzailleari, hain zuzen, egin duen kudeaketaren eta urbanizazioaren ordainketa gisa dagozkion lursailak eta, behar bada, eskubideak esleitzea.
- Jabeei –hala badagokio, nahitaez, eta bakoitzak dituen eskubideen arabera–, hasierako finka, partzela edo orubeen orde, egikaritzearen ondoriozko orubeak ematea.

LAUGARRENA.- Birpartzelazioaren edukia proiektu batean jaso behar dela honako agiri hauek bilduko dituen:

- Memoria.
- Jabeen eta interesdunen zerrenda, beren eskubidearen izaera eta zenbatekoa adierazita.
- Ondoriozko finkak esleitzeko proposamena, bakoitzari dagokion hirigintza-aprobetxamendua eta esleipen-hartzaileen izendapen nominala adierazita.
- Plana gauzatzeko iraungi edo suntsitu behar diren eskubide, eraikin, eraikuntza edo landaketen tasazioa.
- Behin-behineko likidazioaren kontua.
- Planoak:





- \* Kokapen-planoa eta hiriarekiko harremana.
- \* Mugaketaren eta informazioaren planoak, birpartzelazio unitatearen mugak, ukitutako finkeen mugak, eraikuntzak eta lursailean dauden gainerako elementuak adieraziz.
- \* Antolamendu-planoa, non exekutatu den planaren planoak erreproduzitzen den, aurrekoaren eskala berean.
- \* Esleipen planoak, adjudikatutako finkeen mugak adierazita.
- \* Informazio- eta esleipen-planoen plano gainjarria.

BOSGARRENA.- Nahitaezko birpartzelazioa egin eta sustatu ahal izango dutela entitate hauek:

- Udalak edo haien menpeko edo haien kide diren edozein erakunde edo entitate, udal planeamendua gauzatzeko.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 16. artikulua aipatzen dituen lursailen urbanizazioa edo eraikuntza gauzatzeko, eta foru-aldundiak, berriz, lege horren 16.2 artikulua aipatzen dituen lursailen. Era berean, gaikuntza hori beste edozein erakunde edo entitate, publiko nahiz pribaturi, haien menpekoei edo haiei atxikitakoei, edo haien partaideei ere aplikatuko zaie, helburu berarekin.
- Administrazio publikoak, jardura integratuen bidez beren sektore-erabilgaitzeko.
- Hitzarmen-batzarrak eta eragile urbanizatzailerak, baldin eta birpartzelazioa beharrezkoa bada urbanizatzeko ekintza-programa bat gauzatzeko, onartu ondoren.

SEIGARRENA.- Birpartzelazio-proiektuek irizpide hauek bete behar dituztela:

- Emandako ondasun eta eskubideak baloratzeko, afektatuen aho bateko akordiorik ezean, egoki den legeria orokorrak ezartzen dituen irizpideak aplikatuko dira, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzeko erregelamendu bidez zehazten diren baldintzetan. Borondatez ezarritako irizpideak ezin izango dira legearen edo aplikatzeko den hirigintza- antolamenduaren aurkakoak izan, ez eta hirugarrenen eskubideentzat edo interes publikoarentzat kaltegarriak ere.
- Jabeen eskubidea, inola ere, egikaritze-unitatearen mugaketa onartzerakoan partzela bakoitzak duen azalerarekiko proportzionala izango da. Dena den, bestelako irizpidea ezar dezakete jabeek, denak bat etorri gero.
- Beharrezkoa da zaintzea esleitutako orubeek jatorrizko finka, partzela edo orubeen kokapen bera eduki dezaten, edo, hori posible ez bada, hurbilen dagoena. Esleipena zuzendu egin daiteke. Hartarako, haztatu egingo dira ondoriozko orubeek beren kokapenaren arabera dituzten balioak, betiere horien arteko ezberdintasuna neurgarria bada eta horrelakorik egitea justifikatzen bada.
- Udalari esleitu zaizkio nahitaezko eta dohaineko lagapenei dagozkien lursailak, orubeak eta eskubideak. Egikaritze-unitatean, eragindako jabeen artean esleitu behar da aprobetxamendu pribaturako izan daitekeen gainerako azalera, birpartzelazioan bakoitzak dituen eskubideen proportzioan.



- Ezin izango dira orube edo finka independente modura inoiz esleitu gutxieneko partzela eraikigarriari exijitzen zaizkion neurriak eta ezaugarriak betetzen ez dituzten lursailak.
- Jabe baten eskubidearen zenbatekoak ez baldin badu gainditzen orube bat edo gehiago finka independente modura esleitzeko beharrezkoa den zenbatekoa, edo hori gainditzen badu, dirutan ordaindu ahal izango zaio esleipenean falta dena edo soberan dagoena. Esleipena betiere goitik egingo da, baldin eta bere horretan mantendu nahi bada eraikuntzak –egikaritzen ari den plangintzarekin bateragarriak– dituen finka, partzela edo orubearen jabearen egoera.
- Kalte-ordainak jaso ahal izango dira jatorrizko edo hasierako finka, partzela edo orubeetan dauden landaketa, instalazio eta eraikuntzen balioaren truke, baldin eta egikaritzen ari den plangintzarekin bateraezinak badira eta ez badute hirigintzako arau-hauste larririk ekarri.
- Birpartzelatzeko eragiketa guztiak derrigorrez islatu beharko dira behin-behineko likidazio-kontu batean, eta hori jabe bakoitzeko edo eragindako eskubideen titular bakoitzeko banakatuta egongo da. Jabea hartzekodun garbia baldin bada, hasierako partzela edo orubea, bakarrik, dagokion kalte-ordaina aurretiaz ordainduz gero eta geroago behin betiko likidazioa egitekotan okupatu ahal izango da.

ZAZPIGARRENA.- Birpartzelazio-proiektuak onartzeko erabakiek ondorio hauek izaten dituztela:

- Nahitaez lagatzeko lursail guztiak dagokion administrazioari eskualdatzea. Lursail horiek jabari osoz eta kargarik gabe eskualdatuko zaizkio, eta lurzoru-ondarera bilduko dira edo plangintzan aurreikusitako erabilerei lotuko zaizkie.
- Partzela zaharrak berriein eraginkortasun osoz subrogatzea, betiere zein zeini dagokion argi utzi ondoren.
- Esleitu diren partzelak, hain zuzen, kasuan kasuko jarduketa-sistemak berekin dakartzan kargak betetzera eta gastuak ordaintzera benetan lotzea.

ZORTZIGARRENA.- Birpartzelazioa onartzeko prozedura honakoa da:

- A) Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 163.3.a) artikularekin bat etorritik, birpartzelazio-proiektuaren hasierako onespena dagokion Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta jabe guztiei (titular erregistratuak zein birpartzelazioak eragiten dien guztiak) jakinarazpena bidaliko zaie.
- B) Birpartzelazioak eragindako eskubideen jabe eta titularrak behartuta daude dauzkaten tituluak erakustera eta beren finkei dagozkien egoera juridikoak deklaratzera. Horregatik, hasierako finken titulartasuna eta egoera egiaztatzeko, jabetza-erregistroak jabariari eta kargei buruz emandako ziurtagiria aurkeztu beharko da (ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 43. artikulua eta Hirigintza Kudeatzeko Erregelamenduaren 103. artikulua).



Aitorpen horiek ez egiteak, oker egiteak edo faltsutzeak ez du eraginik izango birpartzelazioaren emaitza objektiboan. Dolo edo zabarkeria larria hautematen bada, dagokion erantzukizun zibila edo penala eskatu ahal izango da.

Tituluak eta finken errealitate fisikoa bat ez badatoz, errealitate fisiko hori nagusituko da birpartzelatze-espedientean.

Desadostasuna eskubideen titulartasunaren ordenan planteatzen bada, behin betiko ebazpena auzitegi arruntei dagokie. Birpartzelazio-proiektua, kasu horretan, titulartasuna zalantzazkoa edo auzigaia dela kalifikatzera mugatuko da, dagokionaren arabera. Administrazio jarduleak bere gain hartuko du titulartasun horien eskubide eta interesen ordezkaritza, espedientea izapidetzearen ondorioetarako. Aipatutako titulartasunei egotz dakizkiekeen gastuak premiamendu-bidetik ordaindu ahal izango dira, ordaintzen ez badira.

Hala ere, muga-arazoak birpartzelazio-espedientean bertan ebatzi ahal izango dira, interesdunak ados badaude, agerraldiaren bidez edo beste edozein modu frogagarriren bidez egiaztatuta.

- C) Birpartzelazio-espedientea hasitakoan, administrazio jarduleak ofizioz eskatu beharko dio dagokion Jabetza Erregistroari birpartzelazio-unitatean sartutako finka guztien jabariaren eta kargen ziurtagiria (Hirigintza Kudeatzeko Erregelamenduaren 102. artikulua eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 43.2. c) artikulua).

Era berean, erregistratzaileak, aipatutako ziurtagiriak egiten dituen aldi berean, finka bakoitzaren bazterrean oharra egingo du, erakunde jardulearen adierazpenarekin eta birpartzelatze-espedientearen hasiera-datarekin.

- D) Espedientea hasi eta hiru hilabeteko epean, jabe interesdunen kopuru osoaren bi heren eta birpartzelatu daitekeen azaleraren ehuneko laurogei ordezkatzen duten jabeek birpartzelazio-proiektu bat egin ahal izango dute.
- E) Aurreko paragrafoan aurreikusitakoa igaro bada, edo, epe hori igaro aurretik, interesdunek adierazten badute ez dutela eskubideaz baliatzeko asmorik, eta, nolahi ere, eskubide horren baldintzak betetzen ez badira, eta abuztuaren 25eko 3288/1978 Errege Dekretuaren bidez onartutako Hirigintza Kudeaketari buruzko Erregelamenduaren 107. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, Udalak erabakiko du proiektua ofizioz idaztea, gehienez ere sei hilabeteko epean.



F) Proiektua honela idatzi ahal izango da:

- Udalaren zerbitzuek berek.

- Goi-mailako teknikari tituludun batek edo enpresa espezializatu batek, indarreko legeriak onartutako edozein kontratazio-moduren bidez. Kasu horietan, Udalaren edo Administrazio jardulearen zerbitzuak berretsi beharko du proiektua, hasierako onspena eman aurretik.

G) Birpartzelazio-proiektua idatzi ondoren, hitzarmen-batzarrak [Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 163.3] hasierako onarpena emango dio, eta jendaurrean jarriko da gutxienez hogeitau egunez eta jabe guztiei bidaliko zaie jakinarazpena.

H) Aurreko izapideak amaitu ondoren, Udaleko zerbitzu eskudunek txosten bat egingo dute bertan aurkeztutako alegazioei buruz, gehienez ere hilabeteko epean (Hirigintza Kudeatzeko Erregelamenduaren 109.1 artikulua).

Txosten honen arabera eta aurkeztutako alegazioen ondorioz proiektua zuzendu behar bada, entzunaldia emango zaie proposatutako zuzenketek eragindako interesdunei, hamabost eguneko epean.

Aurkeztutako alegazioen eta zerbitzuen txostenaren ondorioz, birpartzelazioa behin betiko onartzeko eskumena duen organoak proiektua zuzentzea erabakitzen badu, proiektuaren eduki orokorrari edo eragindako gehienei funtsean eragiten dieten baldintzetan, entzunaldiaren izapidea errepikatu beharko zaie espedientean interesa duten guztiei.

I) Aurkeztutako alegazioak eta horiei buruz egindako txostenak ikusita, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.j) artikularekin bat etorritik, alkateak birpartzelazio-proiektua onetsiko du, baietsitako alegazioen ondoriozko zuzenketekin.

Onarpen hori huts-hutsik eta besterik gabe edo zalantzarik gabe adierazten diren zuzenketekin egin ahal izango da, eta behin betiko sartuko dira proiektuan.

J) Behin betiko ebazpen hori interesdun guztiei jakinaraziko zaie, eta udaletxeko ediktu-oholean, dagokion lurralde historikoko aldizkari ofizialean eta bertan hedaturarik gehien duen egunkari batean argitaratuko da.

Halaber, kopia bat bidaliko zaio autonomia-erkidegoko organo eskudunari, abuztuaren 25eko 3288/1978 Errege Dekretuaren bidez onartutako Hirigintza Kudeaketari buruzko Erregelamenduaren 111.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.



K) Administrazio-bidean irmoa denean, erabakia hartu duen organoak eskritura publikoa egiletsiko du edo dokumentu bat egingo du, abuztuaren 25eko 3288/1978 Errege Dekretuaren bidez onartutako Lurzoruaren Araubideari eta Hiri Antolamenduari buruzko Legearen Garapen eta Aplikaziorako Hirigintza Kudeaketari buruzko Erregelamenduaren 113.2 artikulua dioenaren arabera bere erabakien aktetarako ezarritako solemnitare eta betekizunekin.

Eskritura publikoa edo administrazio-agiria Jabetza Erregistroan inskribatuko dira.

BEDERATZIGARRENA.- Euskadiko Etxebizitza eta Lurra EA (VISESA) aurkeztutako «20.1 Amartz Paper-Fabrika» azpiesparruko birpartzelazio-proiektuaren aldaketaren eta hura osatzen duten dokumentazio osagarrien aurrean, Tolosako Udalak hala eskatuta, Nekane Azarola Martinez abokatuak egin duen **TXOSTEN JURIDIKOAN JASOTAKOA:**

#### <<I.- AURREKARIAK

2009ko martxoaren 3ko osoko bilkuraren erabakiz, behin betiko onartu zen Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Testu Bategina.

Plangintza-tresna horretan, "20-AMAROTZ" hirigintza-eremua mugatu zen, hiri-lurzoru gisa sailkatua eta bizitegi-lurzoru gisa kalifikatua. Eremu horretan zehaztu zen 20.1 azpieroemua, "Amarotz paper-fabrika", birpartzelazio-proiektuaren xede den eremua.

Azpieroemua hori xehetasunez antolatu zen Plan Berezi baten bidez, eta haren testu bategina 2010eko irailaren 28ko osoko bilkuraren erabakiz onartu zen behin betiko (GAO, 215. zk., azaroaren 10ekoa).

Plangintza xehatua onartu ondoren, honako agiri hauek onartu ziren:

- Urbanizatzeko Jarduketa Programaren testu bategina, 2010eko urriaren 4ko erabakiaren bidez behin betiko onartua.
- Birpartzelatze-proiektua, 2011ko azaroaren 25eko erabakiaren bidez behin betiko onartua.
- Urbanizazio Proiektuaren testu bategina, 2013ko urtarrilaren 25ean behin betiko onartua.

Ondoren, 2013ko apirilaren 26ko osoko bilkuraren erabakiz, behin betiko onartu zen Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren lehen aldaketa, ekipamendu-lokal bat kentzeko eta sestra azpiarekiko eta babes ofizialeko etxebizitzekiko lurzatiaren eraikigarritasunak finkatzeko.



Urbanizazioaren lehen fasea 2014an gauzatu eta jaso zen, eta ondoriozko P1 eta P2 partzelak, eremu urbanizatu horretan kokatuta daudenez, urbanizatu egoeran daude, urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretua betez. Ondorioz, Uraren Euskal Agentziak 2014. urtean aplikatutako uholde-arriskugarritasuneko irizpideek ez zioten lurzati horien garapenari eragiten. Aitzitik, P3 eta P4 lurzatiek, landa-eremutat jotzen direnez, ezin zuten beren eraikigarritasuna garatu.

Hori dela eta, 2022ko apirilaren 4an, Tolosako Udalak eta VISESAk hirigintza-hitzarmen bat sinatu zuten "20.1 Amartz paper-fabrika" azpieroemaren garapena ahalbidetzeko, Plan Bereziaren antolamendu xehatua aldatuz, eta JUParen, urbanizazio-proiektuaren eta birpartzelazio-proiektuaren aldaketa sustatuz.

Tolosako Udalak aipatutako hirigintza-tresnen aldaketa izapidetzeko konpromisoa hartu zuen, bai aipatutako hitzarmenean, bai 2024ko abuztuaren 30eko GAOn argitaratutako lankidetzaren hitzarmenean.

Erabakitakoa betez, osoko bilkurak 2024ko urriaren 31n hartutako erabakiaren bidez, behin betiko onartu zen Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren bigarren aldaketa, "20.1 Amartz paper-fabrika" azpieroemari dagokiona. GAOn argitaratua, 230. zenbakian, 2024ko azaroaren 28an.

Plan Bereziaren bigarren aldaketak antolamendu-helburu hauek planteatzen ditu:

- P-2 partzela (Tolosako 20251. zenbakiko erregistro-finka) bi partzela-unitatetan banatzea, P-2.1 eta P-2.2 izenekoetan, zeinek behar bezala sustatzea ahalbidetuko duten, alokairu publikoko etxebizitza babestuko egungo beharrei erantzuteko.
- Bizitegi-eraikigarritasuna kentzea, eta, ondorioz, baita P-3 eta P-4 izeneko partzeletan (Tolosako 20252 eta 20253 zenbakiko erregistro-finkak, hurrenez hurren) aurreikusitako eraikinak ere. Izan ere, partzela edo erregistro-finka bi horiek lehentasunezko fluxu-eremuan daudelako.
- Partzela pribatuko espazioak libre uztea, okupazio pribaturik eta plangintzako erabilerara publikoko zortasunik gabe, eta obren amaieran Udalari laga beharreko espazio publiko gisa proposatzea.
- Lurzatiaren eraikuntza-profila handitzen da, eta Amartz auzoaren mugakide den P-1 partzelaren altuera B+7koa izango da gehienez iparraldean, eta B+8koa hegoaldean. P-2.1 eta P-2.2 lurzatiak, berriz, B+9ko gehieneko profilerara igotzen dira eta hegoaldeko muturrean B+8ko gehieneko batera jaisten dira.
- Bizitegi-eraikigarritasuna ez da handitzen, baina hirigintza-eraikigarritasunean erabileraren aldaketa bat dago, BOEen aprobetxamenduak handituz etxebizitza libreen aprobetxamenduen aldean, eta etxebizitza tasatuen aurreikusitako aprobetxamenduak kenduz. Ez da gaitzen eremu osoari esleitutako gehieneko aprobetxamendu homogeneizatua/haztatua



- Merkataritza osoa kontzentratzen da (gutxi gorabehera 1.200 m<sup>2</sup>t) beheko solairuko lokal bakar batean, P-1 lurzatian.

JUPari dagokionez, aldaketa puntual bat izapidetu da, eta behin betiko onartu zen, Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko azaroaren 19an hartutako erabakiaren bidez.

2024ko azaroan, VISESAk birpartzelazio-proiektuaren aldaketa aurkeztu zuen Tolosako Udalean.

Beraz, txosten honen bidez aztertu nahi da Birpartzelazio Proiektuak – alde batetik – betetzen dituen Hirigintza Plangintzaren zehaztapenak, eta, bestetik, ondoriozko lurzatiaren deskribapena bat datorren Jabetza Erregistroan inskribatzeko hirigintza- eta hipoteka-legerian eskatutakoarekin.

## II.- BIRPARTZELATZE-PROIEKTUAREN AZTERKETA JURIDIKOA

Lehenik eta behin, adierazi behar da proiektua jabe bakarraren kudeaketa-tresna gisa aurkeztu dela, eta hala egiaztatzen da erregistro-ziurtagirietan. Ondorioz, ez da beharrezkoa Hitzarmen Batzorde bat eratzea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 160.5 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Proiektuaren dokumentuaren edukiari dagokionez, honako hau adierazten da:

**1.-** Birpartzelazio-proiektuaren aldaketaren xede den eremua ez dago zehaztuta aurkeztutako kartografian. Birpartzelatze-proiektuaren memorian, jatorrizko lurzatiak eta aldaketaren ondorioz sortutakoak deskribatzen dira, eta horien azalera (23.913 m<sup>2</sup>) bat dator.

**2.-** Birpartzelazio Proiektuaren aldaketaren xede diren lurzatiak, hirigintza-erakigarritasuneko lau lurzatiez gain, lagapen publikoko lurzatiak ere eraginpean geratzen dira, espazio libreko tokiko sistemara eta bide sistema lokalera bideratutakoak. Beraz, planoetan jaso behar dira jatorrizko eta ondoriozko lurzati guztiak, baita horien azalera ere.

**3.-** Aurkeztutako erregistro-ziurtagirien bidez egiaztatu da aurkeztutako partzelen jabe bakarrak Euskadiko Etxebizitza eta Lurra EA eta Tolosako Udala direla, eta jabe horiek direla ondoriozko partzelen esleipendunak.

**4.-** 20250, 20251, 20252 eta 20253 lurzatiaren erregistro-ziurtagirietan, erabilera publikoko zortasunak ezartzen dira sotoko garajeak dituzten eta sestra gaineko altueran eraikita ez dauden lurzatiaren. Aldatutako Plan Bereziaren antolamenduan, lurzoru horiek espazio publiko gisa lagatzea proposatzen da. Ondorioz, jatorrizko lurzatiaren gainean eratutako zortasunak desagertu egiten dira eta ondoriozko partzelak kargarik gabe gelditzen dira.



**5.-** Eraikuntza-aprobetxamenduei dagokienez, birpartzelazio-proiektuan lurzati eraikigarrien azalera behar bezala islatzen da, bai eta sestra gainean eta azpian emandako hirigintza-eraikigarritasuna ere.

Eraiki beharreko etxebizitzaren erregimenari dagokionez, berariaz adierazten da P1 lurzatian eraiki beharreko etxebizitzak prezio librekoak izango direla, eta P2.1 eta P2.2 lurzatietan babes ofizialekoak.

**6.-** Erabilerak hirigintza-plangintzan baimendutakoak dira, eta lagapen-partzelen azalera aldatu dira. Honako hauek izanez:

\* Espazio libreen tokiko sistema, 15.617,60 m<sup>2</sup>-ko azalerarekin, kontzeptu horretan lagatako azalera 7.548,6 m<sup>2</sup>-tan handituz.

\* Tokiko bide-sistema, 2.950 m<sup>2</sup>-ko azalerarekin, kontzeptu horretan lagatako azalera 4.259 m<sup>2</sup>-tan murriztuta.

**7.-** Euskadiko Lurzoruaren Legearen 146. artikulua honako hau ezartzen du:

*“1.– Doaneko lagapenez lortu gabeko jabari eta erabilera edo zerbitzu publikoko ondasunak baldin badaude egikaritze-unitate batean, ondasunon titularra den administrazioaren esku egongo da unitatearen azalera dagokion hirigintza-eraikigarritasuna.*

*2.– Doaneko lagapenez lortutako jabari eta erabilera publikoko ondasunen kasuan, lehendik zeuden ondasunen azalera, hain zuzen, antolamendua egikaritzearen ondorioz sortutakoak adinakoak edo txikiagoak baldin badira, elkarren ordezkotzat joko dira. Azalera handiagoak badira, soberakina lursail eraikigarritan eskuratuko du administrazioak, dagokion proportzioan.”*

Aurkeztutako birpartzelatze-proiektua aztertuta, jabari publikoko lurzatiei dagokienez, Udalak 15.278 m<sup>2</sup>-ko ekarpena egiten du eta 18.567,6 m<sup>2</sup> jasotzen ditu. Azken batean, azalera handiagoa da, eta, beraz, ez dago gehiegizko konpentsaziorik.

Azken batean, jabari publikoko lurzoruak birpartzelatzeko proiektuan egindako tratamendua zuzena da.

**8.-** Aurkeztutako eta ondoriozko lurzatiaren deskribapenak uztailaren 4ko 1.093/1997 Errege Dekretuaren 7. artikuluan ezarritako zehaztapenak betetzen ditu, ondoriozko partzelak jatorrizko partzelekin duten harremana (*correspondencia*) edo lotura izan ezik. Dekretu horren bidez, hirigintza-izaerako egintzak Jabetza Erregistroan inskribatzeari buruzko Hipoteka Legea betearazteko Erregelamenduaren arau osagarriak onartzen dira.





**9.-** Ondoriozko lurzatiek deskribapenei dagokienez, P 2.1 lurzatie mugak (hegoaldea eta mendebaldea) osatu behar dira, eta P 2-2 lurzatie akats bat antzeman da ekialdeko mugan. Lagapen publikoko lurzatiek deskribapenak, birpartzelatze-proiektuaren kartografia osatu ondoren, berrikusi egin behar dira. Gainera, beharrezkotzat jotzen da berariaz deskribatzea P-1, P 2-1 eta P 2-2 ondoriozko lurzatie inguruan sortzen diren lagapeneko lurzoru publikoak.

**10.-** Tolosako Udalaririk hirigintza-ekintzak sortutako gainbalioetan parte hartzeagatik dagokion % 15eko lagapenari dagokionez, VII. atalean adierazten da ordezkoko konpentsazio ekonomiko bat ezarri zela, 2.358.949 eurokoa, eta jada ordaindu zela.

Ordainketa horiek hiru zatitan egin zirela egiaztatu da.

**11.-** Ondoriozko lurzatiek hirigintza-kargari dagokionez, akats bat antzeman da P.01 ondoriozko lurzatie, 742.200,86 € kopuruaren ordezkoko 784.781,77 € jarri behar baita.

**12.-** Ondoriozko finen balorazio-irizpideak Birpartzelazio Proiektuaren aldaketaren memoriaren VIII. atalean ezarritakoak dira, eta haztapen-koefizienteak Birpartzelazio Proiektuan erabilera desberdinetarako aplikatu ziren berberak dira.

**13.-** Emandako eraikigarritasun haztatuaren arabera, hirigintza-karga ezarri da, eta ehuneko hauek dagozkio urbanizazio-kargetan parte hartzeko:

\* 1. partzela (*etxebizitza librea*): % 65,48.

\* 2.1 lurzatie (*babes ofizialeko etxebizitza*): % 19,48.

\* 2.2 lurzatie (*babes ofizialeko etxebizitza*): % 15,04.

Azkenik, eta prozedurari dagokionez, lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 163.3 artikulua zehazten du Hitzarmen Sistemaren Birpartzelazioa Nahitaezko Birpartzelazio izaera duela eta hasiera batean Ituntze-Batzarrak onartuko duela.

Kasu honetan, Ituntze-Batzorderik ez dagoela kontuan hartuta, Euskal Lurzoruari buruzko Legearen 48.3 artikulua arabera, Udalak onetsi behar du hasiera batean, jendaurrean jarri behar da 20 egunez eta eragindako jabeak jakinarazi behar zaio.

Ondorioz, Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko "20.1 Amartz Paper-fabrika" azpiesparruaren Birpartzelazio Proiektuaren aldaketari **ALDEKO TXOSTENA** egiten da, eta Tokiko gobernu-batzarrari honako akordio hau hartzea PROPOSATZEN DA:

**Lehen.** Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko "20.1 Amartz Paper-fabrika" azpiesparruaren Birpartzelazio Proiektuaren aldaketari hasierako onespina ematea, behin betiko onespenerako honako alderdi hauek zuzentzeko baldintzapean:



1.- Birpartzelazio Proiektuaren memoria eta planoak koordinatzea. Birpartzelatze-proiektuaren planoetan, jatorrizko eta ondoriozko partzela guztiak eta horien azalerak jaso beharko dira.

2.- ondoriozko lursailetan, jatorrizko lurzatiekin duten lotura adierazi beharko da.

3.- P.01. ondoriozko partzelaren hirigintza-kargan antzemandako akatsa zuzentzea.

4.- Ondoriozko P-2.1 eta P 2.2 lurzatietan mugak zuzendu eta osatzea. Lagapen-partzelen deskribapena berrikusi egin beharko da lurzati horiek birpartzelazio-proiektuaren planoetan islatzen direnean, eta berariaz deskribatu beharko dira P-1, P 2-1 eta P 2-2 ondoriozko partzelen inguruan kokatutako lagapen-lurzoruak.

**Bigarrena.**- Proiektua hogeit egunez jendaurrean jartzea, eta erabakia GAO-n, hedapen duen egunkari batean, iragarki-oholean eta Udalaren webgunean argitaratzea.

**Hirugarrena.**- Erabakia VISESAri jakinaraztea».

HAMARGARRENA.- Nekane Azarola Martinez abokatuak egindako txosten juridikoan jasotakoa, hirigintzako tekniko juridikoak egindako **AZTERKETA JURIDIKOAN** jasotakoa:

«Aintzat harturik Euskadiko Etxebizitza eta Lurra EAK (VISESA) aurkeztutako dokumentazioaren edukia, zuzena eta egokia da Nekane Azarola Martinez abokatuak egindako txosten juridikoan jasotako aurrekariak zein azterketa juridikoa. Izan ere, besteak beste, kontuan izan da aplikagarri den araudia eta, baita, orain dagokigun azpiesparruaren inguruan Udalbatzak 2024ko urriaren 31n ospatutako Osoko Bilkuran behin betikoz onartutako Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren bigarren aldaketan (2024/11/28 GAO 230 zk.) jasotako antolamendua ere. Beraz, bat egiten dut adierazitako txosten juridiko horretan jasotakoarekin».

HAMAIKAGARRENA.- «20 Amartz» esparruko «20.1 Amartz Paper-Fabrika» azpiesparruko birpartzelazio-proiektuaren lehen aldaketa hasieraz onesteko eskumena Alkateari dagokiola, hirigintza-kudeaketako egintza den heinean, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.j) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik. Tolosako Udalarari dagokionez, ordea, eskuduntza hori Tokiko Gobernu Batzordeari eskualdatu zitzaioela 2023ko uztailaren 3ko 2023/1707 Alkatetza Dekretuz. Hortaz, organo horri dagokiola hasierako onespina ematea.

Beraz, aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,



## ERABAKI DU

**LEHENA.-** HASIERAKO ONESPENA EMAN DAITEKE Tolosako Udalean, 2024ko azaroaren 27an (2024-14889 erregistro zk.) eta 2025eko urtarrilaren 3an zein 8an (2024-74 eta 276 sarrera zenbakiak) Euskadiko Etxebizitza eta Lurra EA (VISESA), Carlos Quindos Fernandezek ordezkatuta, aurkeztutako «20.1 Amarotz Paper-Fabrika» azpiesparruko birpartzelazio-proiektuaren aldaketari, baina behin betiko onespenerako honako zuzenketa hauek aurkezteko BALDINTZAPEAN:

1. Birpartzelazio-proiektuaren memoria eta planoak koordinatzea. Birpartzelazio-proiektuaren planoetan, jatorrizko eta ondoriozko partzela guztiak eta horien azalerak jaso beharko dira.
2. Ondoriozko lursailetan, jatorrizko lurzatiekin duten lotura (“correspondencia”) adierazi beharko da.
3. P.01. ondoriozko partzelaren hirigintza-kargan antzemandako akatsa zuzentzea, 742.200,86 € kopuruaren ordezkari 784.781,77 € jarri behar baita.
4. Ondoriozko P-2.1 eta P 2.2 lurzatietan mugak zuzendu eta osatzea. Lagapen-partzelen deskribapena berrikusi egin beharko da lurzati horiek birpartzelazio-proiektuaren planoetan islatzen direnean, eta berariaz deskribatu beharko dira P-1, P 2-1 eta P 2-2 ondoriozko partzelen inguruan kokatutako lagapen-lurzoruak.

**BIGARRENA.-** Birpartzelazio-proiektuaren aldaketa jendaurrean jarri behar da hilabetez, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean, Diario Vasco, Berria eta Tolosaldeko Atarian eta udaletxeko iragarki-oholean iragarkia jarriz.

Era berean, interesdunen eskura egongo da Tolosako Udalaren web gunean [<https://udala.tolosa.eus/eu/udal-administrazioa/iragarki-taula>].

Jendaurreko erakustaldian, espedientea aztertu nahi duen edonoren esku geratuko da, bidezko alegazioak aurkez daitezten.

**HIRUGARRENA.-** Erabakia jakinarazi behar zaio Euskadiko Etxebizitza eta Lurra EAri (VISESA).



**4. DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA:**

**2025/118 Dekretua: 2024/62 faktura zerrendak**

2025KFAK0001

**ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA**

Tolosako Udaleko Kontuhartzaitza eta Diruzaintza Saileko Zinegotzi Delegatuak, Estitxu Kortejarena Ugartek, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritakoarekin, eta 2023/1695 Alkatetza Dekretuak, 2023ko ekainaren 30ekoak, zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

**KONTUAN HARTURIK**

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2024ko honako faktura-zerrenda hau:

62. zenbaki duena, 239.026,80 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, Zinegotzi Delegatu honek

**ERABAKI DU**

**LEHENEA.-** Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

62. zenbaki duena, 239.026,80 eurokoa.

**BIGARRENA.-** Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.



*Ebazpen honek bide administratiboari amaiera ematen dio. Beraren kontra, honako errekurtsio hauek jar daitezke:*

*Auzibidera jo aurretik, interesdunak aukera izango du birjarpen errekurtsioa aurkezteko Alkateari hilabete bateko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita, hala xedatuta baitago Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan.*

*Bestela, birjarpen errekurtsioaren orde, edo errekurtsioaren erantzunaren aurka joko balu, interesatuak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera. Errekurtsio hau, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztuko da.*

***Agindu eta izenpetzen duena Ogasun eta Finantza Administrazio Saileko zinegotzi delegatuak, eta nik, Idazkari akzidental naizen honek, ziurtatua.***

ZINEGOTZI DELEGATUA

IDAZKARI AKZIDENTALA

Estitxu Kortejarena Ugarte

Francisco Javier Araniguria Rodrigo

Batzarkideak jakinaren ganean geratu dira.

**2024/1933 Dekretua: 2024/64 faktura zerrendak**

### **ALKATETZA DEKRETUA**

**ANGEL MARTINEZ DE RITUERTO ARREGUI** Tolosako Udaleko alkate-udalburuarena, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 artikuluan ezarritakoarekin.

ESKUF7facc0-7d38-4ce5-bdfd-fb438e6275f3



## KONTUAN HARTURIK

LEHENA.- Kontuhartzailletza teknikariak egindako txostenean ondorengo hau zehaztu zuen:

### AURREKARIAK

“Asociación Protectora de Animales y Plantas de Gipuzkoa” elkarteak aurkeztutako ondorengo fakturak jaso dira, guztira 12.490,57 eurokoak, 0700.227.07.311.00 2024 aurrekontu partidaren kargura:

Faktura zk.	Fakturaren data	Zenbatekoa	Kontzeptua
018/2024	2024/02/28	852,45	Otsaileko bilketa zerbitzua
029/2024	2024/02/28	997,04	Hileko kuota finkoa: otsaila
044/2024	2024/04/04	997,04	Hileko kuota finkoa: martxo
040/2024	2024/04/30	1.342,41	Apirileko bilketa zerbitzua
059/2024	2024/04/30	997,04	Hileko kuota finkoa: apirila
050/2024	2024/05/31	1.653,65	Maiatzeko bilketa zerbitzua
074/2024	2024/05/31	997,04	Hileko kuota finkoa: maiatza
064/2024	2024/06/30	426,22	Ekaineko bilketa zerbitzua
089/2024	2024/06/30	997,04	Hileko kuota finkoa: ekaina
077/2024	2024/07/30	2.233,60	Uztaileko bilketa zerbitzua
104/2024	2024/07/31	997,04	Hileko kuota finkoa: uztaila.

**Guztira: 12.490,57**

Gastuak kontratu txiki moduan izapidetu dira.

### OINARRI JURIDIKOAK

- 21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzkoa, bere IV TITULUA: KONTUHARTZE-KONTROLA.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko 32/2018 FORU DEKRETUA, abenduaren 27koa, Gipuzkoako tokiko sektore publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena.
- 2021/7/29 datako toki erakundearen osoko bilkuraren erabakia, aurretiazko fiskalizazio eta kontu-hartze mugatuko araubidea eta espedienteetan egiaztatu beharreko baldintzak onartzen dituena.



## JAKINARAZTEN DUT

**Lehena.-** Obligazioen onarpena aurretiazko kontu-hartzearen menpe daude, abenduaren 27ko Gipuzkoako tokiko sektore publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duen 32/2018 Foru Dekretuaren 18. artikulua arabera.

Organo kontu-hartzaileak egiaztatu beharko du obligazioa onartzeko beharrezkoak diren baldintza guztiak betetzen direla.

**Bigarrena.-** Kontu-hartzaile akzidentalak, espediente bereko 2024ko otsailaren 6ko fiskalizazio txostenean, adierazi zuen, aipatutako elkarteak aurkeztu zituen 2023 urteko irailtik abendura bitarteko animalien bilketa zerbitzuaren 4 fakturak ez zirela behar bezala izapidetu (2024FISK0002):

«...gastua kontratu txiki bidez izapidetu da, SAREKO aplikazioan egindako eskarien bidez. Baina, aurkeztutako faktura hauek, eta baita urtean zehar aurkeztu diren gainontzekoak ere, prestazio errepikakor baten ondorio dira, eta Sektore Publikoko kontratuak arautzen dituen 9/2017 Legearen 28.8 artikulua arabera, prestazio horiek ezingo dute urtebete baino gehiago iraun. Kontratu txiki baten bidez ezin bada gastu hau tramitatu, aldeztu aurretik fiskalizatu behar da.

«2.-Zerbitzu honi buruz 2023ko otsailaren 22an egindako fiskalizazio 39/2023 txostenean eta 2023ko martxoaren 1eko 2023/466 Alkatetza Dekretuan Idazkariak egindako eginbidean adierazten zen zerbitzu hau ezin zela kontratu txiki bidez tramitatu eta lizitazio prozedura hasi beharra zegoela. Zerbitzuaren lizitazioa abian jartzeko denbora emate aldera, 2023an ez da txostenik egin "Asociación protectora de animales y plantas de Gipuzkoa" Elkarteak aurkeztutako fakturei buruz. Baina, egia esan, nahitaezko lege-prozeduraren arabera izapidetzen ez den zerbitzu bat ematen jarraitzen dugu. Beraz, lizitazioa lehenbailehen martxan jartzea derrigorrezkoa da.»

Txostenaren emaitza erreparo etenarazlea izan zen.

**Hirugarrena.-** Udalbatzak, 2024ko otsailaren 29an, Ohiko Osoko bilkuran, onartzea erabaki zuen "Asociación Protectora de Animales y Plantas de Gipuzkoa" elkartearen kredituen judiziorik kanpoko aitortpena. Erabaki honen bidez ordaindu ziren 2023 urteko irailtik abendura bitarteko fakturak.

**Laugarrena.-** "Asociación protectora de animales y plantas de Gipuzkoa" Elkarteak animaliak biltzeko zerbitzuari dagozkion beste 11 faktura aurkeztu ditu eta horien gastuak zuzen izapidetu gabe jarraitzen du. Izan ere:



• *prestazioak errepikakorrak dira eta urtero behar berari erantzuten diote, kontratu txikien iraupena urtebetetik beherakoa denean, luzatzeko aukerarik gabe, 9/2017 Legearen 29.8 artikularen arabera.*

*Espedientea legea jarraituz izapidetu ez denez, ulertu behar da ez dela egin eginkizun kontu-hartzailea, eta abenduaren 27ko Gipuzkoako tokiko sektore publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duen 32/2018 Foru Dekretuaren 28. artikulua aplikatu behar da. Honela dio artikulua honek:*

---

*“28. artikulua. Eginkizun kontu-hartzailea ez betetzea.*

*1. Foru dekretu honetan jasotakoaren arabera eginkizun kontu-hartzailea derrigorrezkoa izanik bete ez denean, ezin izango da ez obligazioa onartu, ez ordainketa izapidetu eta ez jarduketa horien aldeko kontu-hartzea egin, harik eta ez-betetzea artikulua honetan jasotakoari jarraituz ezagutu eta konpondu arte.*

*2. Baldin eta espediente bat ezagutzean organo kontu-hartzaileak eginkizun kontuhartzailea bete ez dela erreparatzen badio, horren berri emango dio espedientea hasi duen agintariari eta, aldi berean, bere iritzia emango du proposamenaz, txosten hori jarduketei erantsita, betiere toki entitateko lehendakariak prozedurarekin eta, bidezkoak izanez gero, gainerako jarduketekin jarraitzea erabaki ahal izateko.*

*Baldin eta eginkizun kontu-hartzailea ez bada betetzen osoko bilkuraren eskumeneko obligazio edo gastuei dagokienez, toki entitateko lehendakariak osoko bilkuraren erabakiaren menpe jarriko du prozeduraren eta, bidezkoak izanez gero, gainerako jarduketekin jarraipena.*

*Txosten horrek ez du izango eginkizun kontu-hartzailearen ariketaren izaerarik, salbu eta eragozpena azaldu bada ordainketa aginduen jatorri diren egintzak fiskalizatu ez direnean. Txostena foru dekretu honetako 15. artikularen 6. apartatuan aipatutako zerrendan sartuko da, eta gutxienez alderdi hauek barnean hartuko ditu:*

*a) Gastua xehetasunez deskribatzea. Hura identifikatzeko behar diren datu guztiak sartuko dira, eta gutxienez honako hauek: organo kudeatzailea, gastuaren xedea, zenbatekoa, izaera juridikoa, noiz egin den, aurrekontu kontzeptua eta zer ekitaldi ekonomikotara egotziko den.*

*b) Adieraztea zer kasutan ez den araudia bete, informatzen duen organo kontu-hartzailearen iritziz, derrigorrezko aurretiazko fiskalizazio edo kontu-hartzea egin gabe egintza eman zenean, urratutako legeko xedapenak espresuki aipatuta.*





c) Egiatzea prestazioak benetan gauzatu direla eta haien prezioa merkatuko prezioarekin bat datorrela. Horretarako, kontuan hartuko dira organo kudeatzaileak aurkeztutako balorazio eta frogagiriak, betiere organo horrek beharrezkoak diren aholku edo txosten teknikoak eskuratu behar izanik.

d) Egiatzea aurrekontu kreditu egokia eta nahikoa dagoela gastua ordaintzeko.

e) Begiratzea aukera ote dagoen eta komeni ote den ordenamendua urratuta emandako egintzak berrikustea. Hori guztia egitea organo kontu-hartzaileari dagokio, betiere aintzat hartuta prestazioak egin diren, haiek zer izaera duten eta nola baloratzen diren, bai eta legea bete den ere. Horretarako, kontuan hartuko da, egintzaren berrikuspenaren emaitza gauzatzeko, kalte-galeren ordainketaren bidea erabiliko dela, betiere Administrazioa bidegabe aberastearen edo bere ardurapeko obligazioa ez betetzearen ondorioz berari dagokion ondare erantzunaren ondorioz. Hortaz, ekonomia prozesaleko arazoak direla eta, berrikuspen hori egiteko eskatzea bidezkoa litzateke bakarrik uste denean kalte-ordain horien zenbatekoa txikiagoa izango dela proposatzen dena baino.

3. Biztanle kopuru handiko udalerrietan, obligazio eta gastuen inguruan esleituta dagoen eskumenaren arabera, osoko bilkurako lehendakariak edo tokiko gobernu batzordeak erabakiko du prozedurarekin eta bidezkoak diren gainerako jarduketekin jarraitu edo ez.

Ebazteko eskumena tokiko gobernu batzordearena denean, espedientea tokiko gobernu batzordeari bidaltzeko ardura izango da espedientearen izapidez arduratzen den organoari dagokion edo organismo autonomoa edo, hala badagokio, partzuergoa adskribatuta duen arloko departamentu edo zinegotziaren organo titularrarena, betiere eskumen hori eskuordetu ahal izan gabe.

4. Osoko bilkurako lehendakariak edo tokiko gobernu batzordeak aldeko erabakia hartzen badute ere, egon daitezkeen erantzukizunak eskatu ahal izango dira.”

**Bosgarrena.-**Kontu-hartzailetzako eginkizuna nahitaezkoa izanda adierazitako espedientean, eta gastua baimentzeko aurretiazko fasean eginkizun hori alde batera utzi denez, ezin izango da obligazioa onartu, ezta jarduketa horien aldeko kontu-hartzea egin, ez-betetze hori ezagutu eta konpondu arte.

**Seigarrena.-** Eten egiten da, ekonomia eta finantza alderdietan, nahitaezko funtzio kontu-hartzailea alde batera utzita emandako egintzaren eraginkortasuna.

**Zazpigarrena.-**32/2018 Foru Dekretuaren 28.2 artikulua aipatzen dituen alderdiei dagokienez:



a. *Gastuaren deskribapen zehatza*

*Ondorengo taulan xehetasunez deskribatzen da egindako gastua*

<i>Faktura zk.</i>	<i>Fakturaren data</i>	<i>Zenbatekoa</i>	<i>Kontzeptua</i>
<i>018/2024</i>	<i>2024/02/28</i>	<i>852,45</i>	<i>Otsaileko bilketa zerbitzua</i>
<i>029/2024</i>	<i>2024/02/28</i>	<i>997,04</i>	<i>Hileko kuota finkoa: otsaila</i>
<i>044/2024</i>	<i>2024/04/04</i>	<i>997,04</i>	<i>Hileko kuota finkoa: martxo</i>
<i>040/2024</i>	<i>2024/04/30</i>	<i>1.342,41</i>	<i>Apirileko bilketa zerbitzua</i>
<i>059/2024</i>	<i>2024/04/30</i>	<i>997,04</i>	<i>Hileko kuota finkoa: apirila</i>
<i>050/2024</i>	<i>2024/05/31</i>	<i>1.653,65</i>	<i>Maiatzeko bilketa zerbitzua</i>
<i>074/2024</i>	<i>2024/05/31</i>	<i>997,04</i>	<i>Hileko kuota finkoa: maiatza</i>
<i>064/2024</i>	<i>2024/06/30</i>	<i>426,22</i>	<i>Ekaineko bilketa zerbitzua</i>
<i>089/2024</i>	<i>2024/06/30</i>	<i>997,04</i>	<i>Hileko kuota finkoa: ekaina</i>
<i>077/2024</i>	<i>2024/07/30</i>	<i>2.233,60</i>	<i>Uztaileko bilketa zerbitzua</i>
<i>104/2024</i>	<i>2024/07/31</i>	<i>997,04</i>	<i>Hileko kuota finkoa: uztaila.</i>

**Guztira: 12.490,57**

b. *Arauk ez betetzearen azalpena*

*Kontuhartzailletza honen iritziz, lehen identifikatutako gastuak txosten honen lehen jakinarazpenean eta eranskinean adierazten diren akatsak ditu.*

c. *Prestazioak egin direla eta prezioa merkatu-prezioarekin bat datorrela egiaztatzea.*

*Saileko arduradunak txosten bat egin beharko du, egiaztatuz, prestazioak egin direla eta hauen prezioa merkatu-prezioarekin bat datorrela.*

d. *Egiaztatzea aurrekontu kreditu egokia eta nahikoa dagoela*

*Gastuaren zenbatekoa ordaintzeko aurrekontu-kreditu egokia eta nahikoa dago 0700.227.07.311.00 2024 aurrekontu partidan, lotura juridikoari dagokionez (AD-2821/2024) elkarteak aurkeztutako hamaika fakturei dagokien gastua onartzeko.*

e) *Egintzak berrikusteko aukera eta komenigarritasuna*

*Ordenamendua urratuz emandako egintzak berrikusteko aukerari eta komenigarritasunari dagokionez, aurreko c) puntuan aipatutako organo kudeatzaileak egiten duen txostenaren arabera izango da.*



*Saileko arduradunak adierazten badu dagozkion prestazioak egin direla eta merkatuko prezioari egokitzen zaizkiola, kontuan hartu beharko da kalte-ordainaren zenbatekoa bat datorrela fakturaren edo gastuaren zenbatekoarekin eta, beraz, ez dela beharrezkoa ESKU57759879-2cd5-4242-8488-9ee7bf5ef557 egintza berrikusteko eskatzea.*

**Zortzigarrena.-** Alkateari dagokio erabakitzea prozedurak, eta kasuan kasu dagozkion jarduketek eta erantzukizunek, jarraituko duten ala ez.

**Bederatzigarrena.-** Aurrekoari kalterik egin gabe, udalaren alde bidegabeko aberastea gertatu bada, eta sailaren arduradunak egiaztatzen badu prestazioak egin direla eta hauen prezioa merkatu-prezioarekin bat datorrela, egindako prestazioak "Asociación protectora de animales y plantas de Gipuzkoa" elkarteari ordaindu behar zaizkiola uste dut, kredituaren judizioz kanpoko aitortpen bat izapidetuz. Kreditu egokia eta nahikoa dagoenez, honen eskumena Alkatearena da.

**Hamargarrena.-** Txosten hau bidali behar zaio alkateari, jakinaren gainean egon dadin, eta organo kudeatzaileari, dagokion txostena aurkez dezan, prestazioen gauzatzeari buruz eta horien prezioa merkatuko prezioari egokitzen zaion ala ez adieraz.

**Hamaikagarrena.-** Txosten honetan aipatzen diren fakturez gain zerbitzua lizitatu bitartean udalak animalien bilketa zerbitzuaren faktura gehiago jasoko balitu, horietan ere eginkizun kontu-hartzailea ez betetze egoera legoke.

**BIGARRENA.-** Kontuhartzaitzak eskatu bezala, udaltzainburuak igorritako txostenean zehazten du prestazioak benetan gauzatu direla eta haien prezioa merkatuko prezioarekin bat datorrela.

Horiek horrela, alkate-udalburu honek

## **E B A Z T E N   D U**

**LEHENA.-** Txosten honetan aipatzen diren fakturaz gain zerbitzua lizitatu bitartean udalak animalien bilketa zerbitzuaren faktura gehiago jasotzen baditu, "Asociación protectora de animales y plantas de Gipuzkoa" elkarteari ordaintzea.

**BIGARRENA.-** Erabaki hauek jakinaraztea interesdunari, Kontuhartzaitzari eta Kontratazio Unitateari.



Ebazpen hau finkoa da eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. Erabakiaren kontra, honako errekurtsio hauek jar daitezke:

Erabakiaren aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, berraztertze-errekurtsioa aurkez dezake Alkatezaren aurrean hilabete bateko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Hori dena, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Bestela, berraztertze-errekurtsioa aurkeztu ordez, edo aipatutako errekurtsioaren erantzunaren aurka joko balu, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Errekurtsio hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Era berean, berriazko ebazpenik ez badago, bai prozedurari amaiera emateko edo bai berraztertze-errekurtsioari erantzuna emateko, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake, edozein unetan. Errekurtsio hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Interesdunari legearen arabera jakinaraz bekio.

**Alkateak agindu eta izenpetua, eta nik, idazkari akzidentala naizen honek, ziurtatua, Tolosan, sinaduran agertzen den datan.**



## >> EGINBIDEA

### **Tolosako Udaleko idazkari akzidentalak eginbide hau egin du, honako hau jasota gera dadin:**

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak hau zehazten du 70.3 artikuluan: “3.- *Ingera gastuen erabilpenari, betebeharren aintzatespenari edo ordainketa-aginduari badagokio, espedientearen izapidetza etengo da harik eta hura ebatzen den arte, beti ere honelakoetan gertatzen denean: a) Oinarria kredituaren askiezintasunean edo proposatutakoaren ezegokitasunean datzanean. b) Ordainketa-aginduak sortu dituzten egintzak fiskalizatu ez direnean. c) Espedientean funtsezko beharkizun edo izapideak alde batetara utzi direnean. d) Ingera obra, hornidura, eskuraketa eta zerbitzuen egiaztapen materialetatik sortzen denean.*”. Halaber, artikuluko bereko 4. idatz-zatiak hau zehazten du: “*Eragozpenak ukitzen duen organoa berarekin ados ez dagoenean, toki entitateko lehendakariak ebatzi beharko du desadostasuna; eta ebatzen hori betearazi beharreako izango da. Ahalmen hau ezin da eskuordetu.*”. Era berean, artikuluko bereko 6. eta 7. idatz-zatiek hau zehazten dute: “6. *Kontu-hartzaitzako organoak txostena helaraziko dio Udalbatzarrari edo organo baliokideari, adierazitako eragozpenen kontra toki entitateko lehendakariak hartutako ebatzen guztien inguruan; halaber, diru sarreren arloan atzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Txosten horrek funtzio ikuskatzaileari dagozkion alderdiei eta betekizunei bakarrik erantzungo die, ikuskatutako jarduketaren aukera edo komenigarritasunari dagozkion gaiak gaineratu gabe. Apartatu honetan jasotakoak puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai zerrendan. Toki entitateko lehendakariak jarduketaren txosten justifikatzailea aurkeztu ahal izango du Udalbatzarrean edo organo baliokidean. 7. Kontu-hartzaitzako organoak, toki entitateko lehendakariaren bitartez, txosten bat helaraziko dio urtero Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, adierazitako eragozpenen kontra toki entitateko lehendakariak eta Udalbatzarrak edo organo baliokideak hartutako ebatzen eta akordio guztien inguruan; halaber, diru sarreren arloan atzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Dokumentazio horrez gain, toki entitatearen justifikazio txostenak aurkeztu beharko dira, hala badagokio.*”.

Hortaz, idazkari akzidental honek adierazi nahi du Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko Foru Arauan xedatutakoaren arabera, beharrezkoa izango dela kontuhartzaitzako organoak txostena helaraztea Udalbatzarrari, adierazitako eragozpenen kontra toki entitateko lehendakariak hartutako ebatzen guztien inguruan. Halaber, alkate-lehendakariaren bitartez, txosten bat helaraziko dio urtero Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, adierazitako eragozpenen kontra alkate-lehendakariak eta Udalbatzak hartutako ebatzen eta akordio guztien inguruan.



ALKATEA

IDAZKARI AKZIDENTALA

Angel Martinez de Rituerto Arregui

Francisco Javier Araniguría Rodrigo

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

**2025/162 Dekretua: 2024/65 faktura zerrendak**

2025KFAK0001

**ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA**

Tolosako Udaleko Kontuhartzailtza eta Diruzaintza Saileko Zinegotzi Delegatuak, Estitxu Kortejarena Ugartek, bat etorrira Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritakoarekin, eta 2023/1695 Alkatetza Dekretuak, 2023ko ekainaren 30ekoak, zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

**KONTUAN HARTURIK**

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2024ko honako faktura-zerrenda hau:

65. zenbaki duena, 220.151,88 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.



Horiek horrela, Zinegotzi Delegatu honek

## ERABAKI DU

**LEHENA.-** Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

65. zenbaki duena, 220.151,88 eurokoa.

**BIGARRENA.-** Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

*Ebazpen honek bide administratiboari amaiera ematen dio. Beraren kontra, honako errekurso hauek jar daitezke:*

*Auzibidera jo aurretik, interesdunak aukera izango du birjarpen errekursoa aurkezteko Alkateari hilabete bateko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, hala xedatuta baitago Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan.*

*Bestela, birjarpen errekursoaren orde, edo errekursoaren erantzunaren aurka joko balu, interesatuak administrazioarekiko auzi-errekursoa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera. Errekurso hau, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztuko da.*

**Agindu eta izenpetzen duena Ogasun eta Finantza Administrazio Saileko zinegotzi delegatuak, eta nik, Idazkari akzidental naizen honek, ziurtatua.**

ZINEGOTZI DELEGATUA

IDAZKARI AKZIDENTALA

Estitxu Kortejarena Ugarte

Francisco Javier Araniguría Rodrigo

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.



**2025/101 Dekretua: 2024/66 faktura zerrendak**

**ALKATETZA DEKRETUA**

**ANGEL MARTINEZ DE RITUERTO ARREGUI** Tolosako Udaleko alkate-udalburuarena, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 artikuluan ezarritakoarekin.

**IKUSIRIK**

LEHENA.- NURA GIZARTE ELKARTEAK, G20779187, faktura hauek aurkeztu dizkio Tolosako Udalari Liburutegian laguntzaileen zerbitzuak egiteagatik:

Faktura zk.	Fakturaren data	Zenbatekoa	Kontzeptua
106	2024/12/27	2.828,38 €	abenduak 12/31 bitartekoak
107	2024/12/27	257,13 €	abenduak 26 eta 27ko lanak

**KONTUAN HARTURIK**

LEHENA.- Tolosako Udalak 2022ko abenduaren 12an sinatu zuen <<udal-liburutegian liburutegi-laguntzaile zerbitzuak emateko>> hitzarmena Eusko Eki SL enpresarekin. Honen bidez, Tolosako Udalaren Kultura, Gazteria eta Festak Sailaren eskumeneko arreta zerbitzua modu eraginkorrean kudeatzeko.

Esleipeneko prozesu horretan aurreikusia zegoen kontratu horren iraupena bi urtekoa izatea. Beraz, zerbitzu kontratu hori 2022ko abenduaren 12an jarri zen indarrean 2024ko abenduaren 11ra arte.

BIGARRENA.- Kontratu hori 2024ko abenduaren 12an iraungi zen, kontratuaren luzapenik erabaki gabe.

HIRUGARRENA.- 2025eko urtarrilaren 7ko datarekin abiarazi zen 2025SABI0001 espedientea, Tolosako Udalak Liburutegiko laguntzaileak zerbitzuaren kontratua esleitzeko prozedura irekia.

LAUGARRENA.- 2025eko urtarrilaren 9an Kontu Hartzaileak fakturak ordaintzeari buruzko espediente honi hasera eman zion omisio txosten batekin, eta bere bosgarren puntuan honakoa dio:

*Bostgarrena.- 32/2018 Foru Dekretuaren 28.2 artikulua aipatzen dituen alderdiei dagokienez:*





a) *Gastuaren deskribapen zehatza*

*Ondorengo taulan xehetasunez deskribatzen da egindako gastua:*

<b>Faktura zk.</b>	<b>Fakturaren data</b>	<b>Zenbatekoa</b>	<b>Kontzeptua</b>
106	2024/12/27	2.828,38 €	Tolosako Liburutegian abenduaren 12tik 31ra laguntzaileen zerbitzuagatik.
107	2024/12/27	257,13	Tolosako Liburutegian abenduaren 26 eta 27 egunetan laguntzaileen zerbitzuagatik .

b) *Arauk ez betetzearen azalpena*

*Kontuhartzailtza honen iritziz, lehen identifikatutako gastuak txosten honen lehen jakinarazpenean eta eranskinean adierazten diren akatsak ditu.*

c) *Prestazioak egin direla eta prezioa merkatu-prezioarekin bat datorrela egiaztatzea Saileko arduradunak txosten bat egin beharko du, egiaztatuz, prestazioak egin direla eta hauen prezioa merkatu-prezioarekin bat datorrela.*

d) *Egiaztatzea aurrekontu kreditu egokia eta nahikoa dagoela Gastuaren zenbatekoa ordaintzeko aurrekontu-kreditu egokia eta nahikoa dago 0800.227.04.332.10 2024 aurrekontu partidan (RCT-5482/2024).*

e) *Egintzak berrikusteko aukera eta komenigarritasuna*

*Ordenamendua urratuz emandako egintzak berrikusteko aukerari eta komenigarritasunari dagokionez, aurreko c) puntuan aipatutako organo kudeatzaileak egiten duen txostenaren araberkoa izango da.*

*Saileko arduradunak adierazten badu dagozkion prestazioak egin direla eta merkatuko prezioari egokitzen zaizkiola, kontuan hartu beharko da kalte-ordainaren zenbatekoa bat datorrela fakturaren edo gastuaren zenbatekoarekin eta, beraz, ez dela beharrezkoa egintza berrikusteko eskatzea.*

**Eta Zazpigarrenean gehitzen du:**

*Zazpigarrena.- Aurrekoari kalterik egin gabe, udalaren alde bidegabeko aberastea gertatu bada, eta sailaren arduradunak egiaztatzen badu prestazioak egin direla eta hauen prezioa merkatu-prezioarekin bat datorrela, egindako prestazioak EUSKO EKI S.L. enpresari ordaindu behar zaizkiola uste dut, kredituaren judizios kanpoko aitorten bat izapidetuz. Kreditu egokia eta nahikoa dagoenez, honen eskumena Alkatearena da.*

**2025ko urtarrilaren 13an Kultura, Gazteria eta Festak saileko zerbitzuburuak txostena egin zuen honakoa adieraziz:**



*Tolosako udal liburutegiak behar beharrezkoa du laguntzaile-zerbitzua kontratatzea pertsonal baliabide propioak osatzen ez dituen bitartean.*

*- Hitzarmen berria sortu arte kontratu txikien bidez zerbitzua osatzeko abendurako aurrekontua eskatu zitzaion Eusko Eki enpresari. Honek abendurako 3.324 euroko aurrekontua aurkeztu zuen.*

*- Eskainitako aurrekonturen prezioa merkatukoekin bat dator, aurreko hitzarmenean sinatutakoen berdina baitira.*

*- Hitzarmena sinatzen ez den bitartean ez da beste modurik izango kontratu txikiena baino. Beraz, hurrengo bi hilabeteetan, gutxienez, honetara jo beharko da berriz.*

*- Dagoeneko abenduko zerbitzuak emanda daude.*

*- Hurrengo hilabeteetan egoera berean jarraitzeko posibilitate handiak daude, beraz, berriro ere kontratu txikiekin jokatu beharko da.*

**BOSGARRENA.-** Kontu-hartzailearen txostenak xedatzen duenez, organo kudeatzaileak prestazioak merkatuko prezioari egokitzen zaizkiola adierazten badu, ez da beharrezkoa egintza berrikusteko eskatzea, eta nahikoa izango da Alkatetzak fakturen zenbatekoari dagokion kalte-ordaina emateari buruz ebaztea.

Faktura ordaindu ezean, Administrazioa bidegabeki aberastuko litzateke.

Kontuan hartu da apirilaren 28ko 424/2017 Errege Dekretuak, tokiko sektore publikoko erakundeetako barne-kontrolaren araubide juridikoa arautzen duenak, 28.2 artikuluan alkateari esleitzen diola bidezko ebazpena emateko eskumena.

**SEIGARRENA.-** Egiaztatu da faktura hauek egiterakoan elkarrekin erabilitako irizpide ekonomikoa zerbitzu-kontratua indarrean zegoen epealdirako ezarritako berbera izan dela; hau da, zerbitzu-kontratuaren indarraldirako adostutako prezio berbera fakturatu dute hiru hilabeteetan emandako zerbitzuaren ordainketa eskatzerakoan.

**ZAZPIGARRENA.-** 2024SABI0012 espediente bidez kudeatzen ari den zerbitzu kontratua esleitu bitartean modalitate honetan eskainiko du EUSKO EKI S.L.ak bere zerbitzua.

Aipatutako guztia aintzat hartuta, alkate honek honako hau

## E B A Z T E N   D U

**LEHENA.-** EUSKO EKI SL, B20537759, aurkeztutako bi faktura hauek onartzea eta ordaintzea:

Faktura zk.	Fakturaren data	Zenbatekoa	Kontzeptua
106	2024/12/27	2.828,38 €	Tolosako Liburutegian abenduaren 12tik 31ra laguntzaileen zerbitzuagatik.
107	2024/12/27	257,13	Tolosako Liburutegian abenduaren 26 eta 27 egunetan laguntzaileen zerbitzuagatik .

ESKUF7facc0-7d38-4ce5-bdfd-fb438e6275f3



**BIGARRENA.-** Modalitate honetan emandako zerbitzuari dagozkion gainerako, aurrekontuak, eta fakturak ere onartzea eta ordaintzea, baldin eta baldintza berak mantentzen badira fakturretan, beti ere kontratu publiko berria esleitu eta indarrean sartzen den dataren aurreko egunera arteko epealdiari badagokio.

**HIRUGARRENA.-** Interesatua eta Kontuhartzaitza Saila jakinaraztea

Ebazpen hau finkoa da eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. Erabakiaren kontra, honako errekurtsio hauek jar daitezke:

Erabakiaren aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, berraztertze-errekurtsioa aurkez dezake Alkatezaren aurrean hilabete bateko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita. Hori dena, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Bestela, berraztertze-errekurtsioa aurkeztu ordez, edo aipatutako errekurtsioaren erantzunaren aurka joko balu, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Errekurtsio hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

**Alkateak agindu eta izenpetua, eta nik, idazkari naizen honek, ziurtatua, Tolosan, sinaduran agertzen den datan.**

ALKATEA

IDAZKARIA

Angel Martinez de Rituerto Arregui

Francisco Javier Araniguría Rodrigo

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo dute 10:00etan.**

ALKATEA

IDAZKARI AKZIDENTALA



## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2025IGBA0003-2025/01/28ko akta/2025/01/28ko akta ()